

PALESTINA: CAF, euskal esku hartzea okupazioan eta bertako langileen erantzun eredugarria > 4

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Dogma zaharkituetatik kontraesan berrietara RAMON SOLA > 11

2020ko maiatzaren 30a | XIV. urtea • 673. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



IKERTZAILEAK, FOKUPEAN

COVID-19 BIRUSAK MUNDUA GERARAZI DU ETA MUNDUTARRAK ARNASARI EUTSITA BEZALA EDUKI DITU, DENAK HARI SO. ZIENTZIAN ETA TEKNOLOGIAN ARI DIREN IKERTZAILEAK ERE, EGITEN ARI ZIRENA ALBORA UTZI ETA GAITZARI BEGIRA JARRI DIRA, BAKOITZAK BERE ERTZETIK LAGUNDU NAHIAN. ETA FOKUAK IKERKETAREN GAINEAN JARRI DIRA, ASKOTAN EZ BEZALA. > 12 Mladen ANTONOV | AFP



4



18



**Euskal esku hartzea Palestinaren
okupazioan eta CAFeko langileen
erantzun eredugarria** 04

**Milioika lagun salbu ekaitza hasi
aurretik** 08

**Raymond Gureme ijitoen
erresistentziaren ikurra hil da** 09

**Zientzian eta teknologian ari diren
ikertzaileak, birusari so** 12

Datorren kontsumoa 18

**Elkarrizketa: Joxi Imaz
Bengoetxea** 22

Argazkilariak, argazkian 26

In fraganti: Elzbieta Podolak 28

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



22



28

SINADURAK:

03 **Isidro Esnaola:** Patronalaren monopolioa indargabetzeko tenorea

10 **Oier Gorosabel:** Kontrol lokusa

11 **Ramon Sola:** Dogma zaharkituetatik kontraesan berrietara

17 **Alai Zubimendi**

20 **Gorka Etxebarria Dueñas:** Wisky botilari tiraka, musikaz

21 **Amaia Nausia Pimoulier:** Volkswagen ere ixten dutenean

27 **Nekane Zinkunegi**
Barandiaran: Eskaera interesatua

27 **Joxean Agirre:** Lotsa botanikoa

30 **Garazi Goia:** Atzerapausoa?



{ datorrena } **Isidro Esnaola**

Patronalaren monopolioa indargabetzeko tenorea

PSOE, Unidas Podemos eta EH Bilduk 2012ko lan erreforma indargabetzeko lortutako akordioak hautsak harrotu zituen pasa den astean. CEOE Espainiako Enpresaburuen Elkartearen Konfederazioko lehendakariak, Antonio Garamendik, berehala utzi zuen bertan behera patronalaren parte hartzea elkarriketa sozialean. Lortutako akordioak «enpresak kaltetzen» zituela esan zuen, baita «nazioarteko konfiantzaren gale-
ra» ekarriko zuela gaineratu ere. Asteburuan argudio berberak errepikatu zituen Iñigo Urkulluk.

Gauzak nahiko argi daude 2012ko lan erreformaren inguruan. Alderdi politikoen arteko akordioa logika politikoan kokatzen da. EAJren kasuan, izandako jarrera al-daketak erakusten du eroso sentitzen dela saltsa horretan: batzuetan aldaketak babestu, beste batzuetan aurka agertu, baina beti-beti enpresari-
en interesak konprometitu gabe. Argazkian nabarmendu dena, hori bai, patronala da. Oso adierazpen borobilak egin ditu «interes orokorraren» izenean eta horrek galdera batzuk sortzen ditu patronalak jokatzen duen paperaren inguruan. Adibidez, zergatik dago patronal bakar bat? Ez

al dago beste enpresari elkarerik? Nola neurtzen da enpresari elkartearen ordezkaritza? Alderdi politikoen eta sindikatuen kasuan, gauzak nahiko argi daude: proiektu desberdinak antolatze-
ko aukera dago eta bakoitzak duen indarra hauteskunderen bitartez neurtzen da. Patronalaren kasuan ez dugu horrelakorik ezagutzen.

Egia da zenbait kasutan sektorekako enpresari elkarteak daudela eta bestelako elkarte enpresarialak ere badaudela, baina, aldiz, lan harremanak, fiskalitatea eta beste hainbat esparru orokor jorratzean, ordezkaritza bat eta bakarra agertzen da beti: Estatuan CEOE, Euskal Herrian CEN Nafarroako Enpresaburuen Elkargoa Nafarroan eta Confebask EAEn eta, gero, herrialde bakoitzeko sukurtsalak. Gainera, oso jeloskor jartzen dira norbait

egun duten monopolioaren aurka agertzen denean. Horrela gertatu zen 2013an Bizkaian Cecobi eta Bizkaiden-
dak elkartearen artean; edo geroago Gipuzkoan Garen enpresari elkartearen sortzean. Beharbada, ordezkaritza-
ren monopolioaren inguruko azken gorabehera esanguratsua kooperatiben lege berriarekin gertatu da. Lanbiden kooperatiben ordezkari-
ei sarrera emateko proposamenari tinko egin zion aurre Confebask-
ek eta enpresaren ordezkari bakar-
ra izaten jarraitzea lortu zuen. Merkatu librea bai, besteentzat; enpresari-
en ordezkaritza-
ren monopolioa zalantzan jartzean, orduan ez lehiakortasunik, ez aniztasunik, ez demokrazia-
rik, ezertxo ere ez.

Legeak onartzen du patronalak, sindikatuak bezala, interlokutorea izan behar duela, baina ez dago behar bezala araututa nola zehaztu behar den ordezkaritza hori. Ez dago finkatuta elkarte bat baino gehiago egon behar den

Legeak onartzen du patronalak, sindikatuak bezala, interlokutorea izan behar duela, baina ez dago behar bezala araututa nola zehaztu behar den ordezkaritza hori

ala ez, bakoitzak duen pisua nola neurtu behar den, eta ez da hauteskunde prozesurik aurreikusten. Beraz, ez dago bide publiko fede-
emailerik zehaztuta enpresari-
en elkarteek duten ordezkaritza neurtzeko. Eta hutsune horretaz baliatu dira batzuk interes partikular-
rak enpresari-
en interes orokor gisa aurkezteko. Are, enpresari askok sarri ez dute bat egiten patronalak hartzen dituen jarre-
ra erreakzionarioekin. Horregatik, hainbeste maite du-
ten merkatu librea gauzatu beharko lukete enpresari-
ek euren esparruan ere. Bada garaia enpresari-
en ordezkari-
tza zehazteko hautagaiak aurkeztu, hauteskundeak egin eta bakoitzak lortutako botoak kontatzeko. Patronalaren monopolioa disolbatzeko tenorea iritsi da, besteak beste, ekonomia eta demokrazia indartzeko. •

PALESTINA

CAF, euskal esku hartzea okupazioan eta bertako langileen erantzun eredugarria

 POLITIKA / Koldo SAGASTI

Datozen asteak erabakigarriak izango dira Ekialde Hurbileko oreka geoestrategikoaren etorkizunerako. Uztailaren 1etik aurrera Israelgo Administrazioak sionismoaren xede historikoetako bat gauzatzeko prozesua martxan jar lezake: Zisjordaniako eremuak bereganatzea.

Halaxe iragarri du Benjamin Netanyahu, hirugarren saia-keran eta ustelkeria kasuen itzalpean, Gobernua osatzea lortu eta egun batzuetara. Egitasmoak, gainera, AEBetako Administrazioaren babes osoa dauka; izan ere, Donald Trumpen iragan urtarilaren 28an aurkeztu zuen “Mendeko Akordioa” izeneko proiektua anexio prozesu horren ataria baino ez da. Mandatari estatubatuar eta israeldarrek alde bakarrez aurkeztutako ituna Jared Kushner enpresari sionistak kozinatu zuen. Kushnerek, Trumpen suhia izateaz gain, Netanyahuarekin familia-harreman estuak ere baditu; eta bere egitasmoan, besteak beste, Zisjordanian kolonia «ilegalek» (okupatzaileen hizkeran) okupatutako eremuari zilegitasun bermea emateko asmoa bildu du. Gauzak horrela, datozen asteotan gauzatu-ko den anexioa urte luzez mamitutako prozesu baten gailurra baino ez da izango.

Baina mapen gainean diseinatutako bereganatze prozesu horrek lur gainean ere izan du bere isla. Zisjordaniako eremuen okupazioa, berez, legez kontrakoa da nazioarteko zuzenbidearen ikuspuntutik, eta bertan ezarritako kolonoen kokalekuek talka egiten dute Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluko 2334. ebazpenare-

kin zein Genevako eta Erromako itunekin, legedi horiek espresuki debekatzen baitute indar okupatzaileak eremu okupatuetara populazioa mugitzea.

Nolanahi ere, azken urteotan Israel azpiegitura egonkorrekin hornitzen ari da kokaleku ilegalok, behin-behineko okupazio horri iraunkortasun bermea emateko. Zisjordaniako koloniak 1948an okupatutako eremuekin lotzen dituzten

errepide eta trenbide sareek, beraz, helburu argi bat daukate: kokagune horien etengabeko hedapen prozesua atzeratzin bilakatzea.

Okupazioak ematen duen aurrerapauso bakoitza egonkortzeko estrategia horretan ezinbesteko papera jokatzeko du azpiegitura zehatz batek: Jerusalemgo tranbiak, JLR (Jerusalem Light Rail) ingelesez. Trenbide horren helburu estrategikoa Jerusalem Ekialde-

Palestina Askatzeko Erakundeak espainol Estatuan duen ordezkaritzak esker ona azaldu zien CAFeko langileei euren keinu solidarioagatik, Gasteizen egindako ekitaldiko parte hartzaileek egin bezala. BDZ-EUSKAL HERRIA

an ezarritako koloniak hirigunearekin lotzea da, kokagune ilegal horiek integratzea eta auzune palestinarrak baztertzea, bertako populazio palestinarra desagerraraziz oreka demografikoa eraldatzeko.


Lurra zulatzeko eta burdinbideak ezartzeko lanak datozen urrian hastekoak ziren; alde batetik, Neve Yaakov eta Pisgat Ze'ev kolonietan, eta, bestetik, Herlz-etik Hadasah Ein Kerem-era. Prozesua azkartu egin da koronabirusaren izurriteak eragindako salbuespenezko egoeraren ondorioz.

LANAK BIZKORTZEKO AUKERA

Jerusalemgo alkate Moshe Lionek eta Israelgo azpiegituren agintariak aukera ezin hobea ikusi dute pandemiak behartutako itxialdian eta aktibitatearen murrizketan, trenbidearen lanak bizkortzeko. Beraz, nazioarteko legedia urratzen duen eta nazioartean polemika piztu duen egitasmoa uste baino lehenago izan liteke gauzatzeko bidean.

Horrek Euskal Herriko konpainia bat konprometitzen du zuzen-zuzenean, Beasaingo CAF enpresa. 2019ko abuztuan CAFek eta Israelgo Shapirrek osatzen duten partzuergoari esleitu zioten trenbide polemikoaren bigarren linea eraikitzeke lanen kontratua.

Esleipena 2017an hasitako prozesu gorabeheratsu baten amaiera izan zen. Izan ere, Israelgo Administrazioak lehia- ketaren izapideak abian jarri zituenetik, parte hartzeak ziren nazioarteko enpresa askok lehiatik erretiratzea deliberatu zuten, proiektuak nazioarteko legediarekin talka egiten zuela ulertuta. Hala nola, Alemaniako Siemens, Frantziako Alsthom, Kanadako Bombardier edota Australiako





CAF enpresari «giza eskubideak errespetatuz nazioarteko legeria bete» eta Jerusalemgo Tren Arina ez eraikitzeako eskaera egin zitzaion Ordiziako Barrena jauregian egindako agerraldian. BDZ-EUSKAL HERRIA

Maquarie enpresek esleitze prozesutik erretiratzea erabaki zuten; segur aski, ez giza eskubideekiko begiruneagatik, bai- zik eta nazioarteko legediaren araberrako krimen batean parte hartzeak euren irudi korporatiboari eragin liezaiokeen kalteagatik. Areago, atzera egin zuten enpresa horietako batek, Alstom frantsesak, dagoeneko partaidetza zuzena zeukan egitasmoan, trenbide bereko lehenengo linearen kudeaketa duen CityPass konpainia kudeatzailearen akzioen %50aren jabe baitzen.

Pasa den otsailean Israeliek bertan behera utzi zuen Alst-

homekiko kontratua. Frantziako konpainia, 420 milioi euroko kalte ordaina kobratzeaz gain, salbuetsita geratuko da nazioarteko iritzi publikoaren aurrean gerra krimen batean esku hartze zuzena izatetik,

Trenbidearen helburua Jerusalem Ekialdean ezarritako koloniak hirigunearekin lotzea da: kokaguneak integratzea eta auzo palestinarrak baztertzea, oreka demografikoa eraldatzeko

Israelgo agintarien azken erabakiak ikusita, nazioarteko legedia urratzen duen eta polemika piztu duen egitasmoa uste baino lehenago izan liteke gauzatzeko bidean

CAF konpainiak osatutako partzuergoa izango baita ardura horretan lekukoa hartuko di- ona, musu truk.

IRUDI KORPORATIBOARI KALTE

Tamaina horretako ilegaltasun batean parte hartzeak ekar ditzakeen zeharkako ondorioen aurrekariak ere badira. 2015ean Frantziako Veolia enpresak Israelen zituen inbertsio guztiak saldu behar izan zituen, horien artean Jerusalemgo tranbiarena, horietan esku hartu izanak konpainiaren irudi korporatiboari ekarri zion kalteak 20.000 milioi euroko galera eragin ziolako

mundu osoan galdutako kontratuetan.

CAFen kasuan, gainera, bes- teetan ez bezalako osagai bere- zia dago, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde- en partaidetza enpresako kapitalean; izan ere, euskal administrazio publikoa konpainiaren akzio- en zati baten jabe da, eta, on- dorioz, haren etekinen zein balizko erantzukizun krimina- len partaide ere bada.

Eta ezin da ukatu Eusko Jaurlaritzak zein Eusko Lege- biltzarra osatzen duten alderdi guztiek CAF ilegaltasun histo- riko batean nahastuta dagoela dakitenik. Halaxe jakinarazi



Eran Efrati Israelgo Armadako soldadu ohia, gaur egun ikertzaile eta ekintzaile antisionista, Gasteizko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean egindako agerraldian, 2019ko urriaren 23an. BDZ-EUSKAL HERRIA

zient 2019ko urriaren 23an Eran Efratik Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean egindako agerraldian. Efrati Israelgo Armadako soldadu ohia da, gaur egun ikertzaile eta ekintzaile antisionista bilakatu. Jerusalem jaio eta hazi zen, oso militarizatutako familia sionista batean. Bere familia-adarretako bat, gainera, Auschwitzeko kontzentrazio esparrutik bizirik ateratakoen ondorengo da, eta horrek, nolabait, uxatu egiten du Israelekiko diskurtso kritikoa darabiltenei ezarri ohi zaien «antisemita» etiketa. Armadako eskarmentuak iraultza pertsonal bat eragin zion Efratiri eta Researching the American-Israeli Alliance erakundea sortu zuen, AEBen eta Israelen arteko armagintza arloko harremanak ikertzeko.

Giza Eskubideen Batzordearen aurreko hitzaldian Efratitik salatu zuenez, Israelekiko armagintza eta merkataritza harremanak azpiegituren arloa ere zabaltzen dira. Ildo

horretan, zehazki aipatu zuen CAF enpresari esleitutako proiektuak okupazioari laguntzen diola. Haren esanetan, Gipuzkoako enpresak Jerusalem Ekialdeko tranbiaren eraikuntzan parte hartzen badu, delitu bat egingo du, proiektua legearen aurkakoa delako nazioarteko legediaren ikuspegitik. Militar ohiak Auschwitzetik bizirik ateratakoen ondorengo gisa hitz eginez amaitu zuen bere mintzaldia. Dei egin zien euskal erakunde-
ei, historiaren alde zuzenean koka daitezen, enbargoa babes dezaten eta ez ditzaten sustatu okupazioaren azpiegiturak.

Euskal Herriko konpainia bat egitasmoarekin konprometituta dago: CAFek eta Shapirrek osatutako partzuergoari esleitu dizkiote trenbidearen bigarren linea eraikitzeko lanak

Parte hartzekoak ziren nazioarteko enpresa askok lehiatik erretiratzea deliberatu dute azkenean, proiektuak nazioarteko legediarekin zuzen-zuzenean talka egiten duela ulertuta

Efratiren agerraldia ez da izan CAFen afera Eusko Legebiltzarrean hizpide izan den saio bakarra. Bi egun geroago, urriaren 25ean, Elkarrekin Podemoseko Iñigo Martinezek ere galdera parlamentario bat egin zion Jaurlaritzari, auzian bere jarrera azal zezan.

LEGALITASUNA ETA ETIKA

Arantza Tapia Garapen Ekonomikorako eta Azpiegitura sailburua izan zen Beasainen egoitza duen konpainiaren defentsan agertu zena. Eusko Jaurlaritzako eledunak azaldu zuen, esandakoa arrazoitu gabe, CAFek aurretiko legaltasun eta etika analisiak eginak zituela eta nazioarteko giza eskubideen estandarrak betetzen dituela. Sailburuak saihestu egin zuen, ordea, nazioarteko legedia urratzen duen proiektu batean parte hartzea legaltasunaren eta giza eskubideen errespetuarekin nola uztartzen den azaltzea.

Gauzak horrela, enpresaren eta bertan erantzukizun han-

dia duten erakunde publikoen «utzikeriaren aurrean», ekimen herrikoia izan da bidegabekeria honen aurrean ahotsa altxatu duena. Lehena, CAFeko langileen batzordea bera. Beasaingo faktoriako beharginen ordezkariak, aho batez, bitan eskatu diote enpresako zuzendaritzari proiektutik erretiratzeko, nazioarteko legediaren eta palestinarren eskubideen kontrakoa delako.

Eskaria egin zuten konpainiaren jokabide-kodea bera ere urratzen duelako egitasmoak. Izan ere, kode horren arabera, «CAFen edota CAF osatzen duten pertsonen edozein jokaera begirune zorrotzekoa izango da legearekiko, giza eskubideekiko eta askatasun publikoekiko».

Palestinako Askapenerako Erakundeak espainol Estatuan duen ordezkariak esker ona azaldu zien CAFeko langileei euren keinu solidarioagatik. Eta Beasain eta Irungoen atzetik, Zaragozakoek ere proiektuarekiko gaitzespena agertu zuten. CAFek Zaragozan duen faktorian ere tranbia horretako zati bat egin behar dute eta hango Grupo Independiente eta CGT sindikatuek proiektutik erretiratzeko eskaera helarazi diote zuzendaritzari.

Beste urrats bat: Euskal Herriko gizarteren ordezkariak batek ere, BDZ mugimenduari (Israelen aurkako Boikota, Desinbertsioak eta Zigorrak) deiari erantzunez, azpiegitura horren ondorioak salatzen dituen eta CAF proiektutik erretiratzea aldarrikatzen duen manifestu bat zabaldu du.

Adierazpena 2020ko otsailaren 22an aurkeztu zen, Ordizian: Euskal Herriko 70 eragile zibil baino gehiagok «CAF, jaitsi zaitez apartheidaren trenetik» izeneko kanpainaren ha-

siera iragarri zuten; salatu zuten trenbidea Palestinako herriarren eskubideen aurkako erasoa dela eta ilegala dela nazioarteko zuzenbidearen arabera; eta galdegin zioten CAFi nazioarteko zuzenbidea errespetatu eta Palestinako «okupazioaren konplize» ez izateko. Sinatzaileen artean daude, besteak beste, Sortu, Podemos, Ezker Batua, Alternatiba, Antikapitalistak eta PCE alderdiak; ELA, LAB, ESK, Steilas, CCOO eta CGT sindikatuak; eta erakunde internazionalista, antimilitarista, feminista eta gobernu kanpoko mordo bat.

SOS PALESTINATIK

Ekimenaren sustatzailea, BDZ mugimendua, milaka taldek osatutako nazioarteko elkartasun sarea da. Palestinako gizarte zibilak berak jarri zuen martxan 2005ean Israelen eta haren ordezkarien aurkako boikot kanpaina, harik eta giza eskubideei eta nazioarteko zuzenbideari atxikitako oinarriko aldarrikapenak bete arte.

Sareak era deszentralizatu eta autonomoan funtzionatu ohi du, alegia, mundu zabalean tokian tokiko taldeek kanpaina lokalak bultzatzen dituzte lekuaren berezitasunak kontuan hartuta. Kasu gutxi batzuetan, afera bereziki larria eta agerikoa denean, nazioarteko mugimenduak tokiko talde baten kanpaina bere egin eta mundu mailako ekimen bihurtzen du. Horixe gertatu da CAFen auziarekin: Euskal Herri mailako kanpaina izate-tik mundu mailakoa izatera pasatu da. Ordizian manifestua aurkeztu zuten 70 eragile-tik gorako zerrendari, munduko milaka erakunderen izenak ere gehitu behar zaizkio.

Istorio honetako zartakorik handiena 2020ko otsailaren

12an pairatu zuen CAFek. Egun hartan Nazio Batuek Zisjordaniko kolonietan esku hartzen duten eta Palestinako okupazioarekin aberasten ari diren 112 enpresen zerrenda beltza kaleratu zuen.

Zerrenda hori behin betiko zerrenda luzeago baten aurre- rapena baino ez da, eta, 2016an egin bazuen ere, orain arte ez du argitara atera nazioarteko erakundeak. Argitalpenaren alde eta kontrako lehia izan da ordutik Nazio Batuetako Batzarrean Palestinako eta Israelgo ordezkartzen artean, baina Donald Trumpek eta Benjamin Netanyahu “Mendeko Akordioa” aurkeztuz erakundeari egindako irainak azkartu egin du dokumentuaren kaleratzea. Nolanahi ere, zerrendaren edukiak estutasun betean jarri du CAF konpainia, txostenak biltzen dituen enpresetako bat Beasaingoaren bazkidea delako Jerusalemgo tranbiaren proiektuan, Israelgo Shapir eraikuntza-enpresa; eta litekeena da giza eskubideak urratzen dituzten konpai-

CAFen kasuan, euskal administrazio publikoa konpainiaren akzioen zati baten jabe da. Ondorioz, enpresaren etekinen zein balizko erantzukizun kriminalen partaide ere bada

Eusko Legebiltzarrera egindako bisitan, Eran Efrati Israelgo Armadako soldadu ohiak dei egin zien euskal erakundeei historiaren alderdi zuzenean kokatu eta okupazioa ez babesteko

Zisjordaniko koloniak 1948an okupatutako eremuekin lotzen dituzten errepide eta trenbide sareek kokaguneon etengabeko hedapen prozesua atzeraezin bilakatu nahi dute. Irudian, Israelgo Armadako bi soldadu trenbide baten ondoan.
BDZ-EUSKAL HERRIA

nien behin betiko dokumentuan CAF ere sartzea. Halaxe azaldu du Santiago Gonzalez Vallejo ekonomialari eta Komite de Solidaridad con la Causa Arabe elkarteko presidenteak. Gonzalezek zuzentzen duen erakundeak salaketa jarri du iruzurreratik CAFen kontra Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren aurrean. Ekonomialariak argudiatu du konpainiak proiektuaren legezkotasuna kolokan jar lezakeen informazioa ezkutatu diela bere inbertsiogileei, eta giza eskubideen arloko legediaz gain merkatukoa ere urratu duela. Halaber, Gonza-

lezen erakundeak eskaera helarazi die Nazio Batuei kolonietan esku hartzen duten enpresen behin betiko zerrendan CAF sar dezan. Michelle Bachelet Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioarekin ere bildu dira horretarako.

ATAKA GAIZTOA

CAF ataka gaiztoan dago. Hamar hilabete pasa dira Israelgo Finantza Ministerioak Shapir konpainiarekin osatutako partzuergoari Jerusalemgo tranbiaren bigarren linea erakitzeko kontratua esleitu zionetik eta oraindik enpresa gipuzkoarreko zuzendaritzak ez du adierazpen publikorik egin, ez du argitu zer jarrera hartuko duen proiektu polemikoan, ez die erantzunik eman langileek zein gizarte zibileko eragileek eskakizunei. Baina denbora haien kontra doa.

Koronabirusak mundu mailan eragindako salbuespenezko egoerak aukera eman dio Israelgo Administrazioari anexioa egonkortzeko azpiegituren eraikuntza azkartzeko, eta CAFek zirt edo zart egin behar du. Datorren ekainaren 13an CAFeko akziodunen batzar orokorra izango da, eta ziur asko Jerusalemgo tranbiaren auziaz itaunduko zaie enpresako arduradunei. Bertan aukera ezin hobe izango dute, Eran Efratik aldarrikatu bezala, historiaren alderdi zuzenean jartzeko, eta, bide batez, konpainiaren irudi korporatiboa orbanik gabe atera dadin afera honetatik. Edo, aitzitik, diruzalekeria hobetsi, epe laburrera jokatu eta luzera aurreikusi ezin dituzten zeharkako ondorioak ekarriko dizkien gerra krimen baten laguntzaille bilakatzea daukate. Nolanahi ere, erabakia historikoa izango da.





Satyaki SANYAL | AFP

 **IKUSMIRA**

MILIOIKA LAGUN SALBU EKAITZA HASI AURRETIK

«Amphan» izena jarri zioten aurreko astean Indiako Mendebaldeko Bengala estatua eta Bangladesh astindu zituen ekaitza bortitzari, zikloia-ri. Hedabideek egin dituzten kalkuluak arabera, 106 hildako eragin zituen fenomeno meteorologikoak, kasu gehienetan eroritako zuhaitzek harapatuta. Hala ere, Antonio Guterres Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusiak zoriondu egin ditu bi herrialde horietako agintariak, erreskate ekipoak eta komunitateak, azken urteotan egin-

dako prebentzio lanari esker milioika pertsona salbu jarri baitzituzten ekaitza iritsi aurretik. Indiak dituen sateliteei esker, bi herrialdeen arteko mugaren inguruan bizi diren hiru milioi lagun eremu arriskutsuenetik ateratzea lortu zuten, bazter haietan hain ohikoak diren hondamendi tragikoagoak saihestuta. Tankerako zikloi batek 9.000 pertsona hil zituen 1999an Mendebaldeko Bengalaren ondoan dagoen Odisha estatuan. Satyaki Sanyalen irudi ikusgarria Kalkuta hirian maiatzaren 21ean hartutakoa da. joseangel.oria@gaur8.info

{ profila }

Iñaki Soto

RAYMOND GUREME

Nazien genozidiotik bizirik ateratako azken ijitoetako bat hil da

Naziek jasanarazi zieten genozidioari “Samudaripen” esaten diote ijitoek. Izen horrekin oroitzuten ditu ijito herriak zapaltzaileen aurkako matxinadak, baita eutsi egin ziotenak ere. Raymond Gureme bizirik atera zirenen arteko azkenetakoa eta erresistentzia horren ikurra zen.

Ijito familia batean jaio zen 1924ean Raymond Gureme, “Manouche” familia batean zehazki, horrela esaten baitiete sinti ijitoei Estatu frantsesean. Haurtzaroan bere familiaren zirkuan eta zinema nomadan bizi izan zen. Haurra zela, animaliak entrenatzen zituen, pailazo eta akrobata gisa lan egiten zuen eta filmak proiektatzen zituen. Hexagonoaren mendebaldeko eta erdialdeko herriak zeharkatzen zituzten. 1930eko hamarkadan, nomaden mugimendua mugatzeko eta ijitoen herria erreprimitzeko legeak sortu ziren. Horrelako legeak aldi berean ezarri ziren Europa osoan.

1940an jendarmeeek Gureme familia osoa atxilotu zuten, agintari alemaniarrek bultzatutako politika errepresiboren barruan. Lehenbizi, Darnetalen, Rouenetik gertuko kontzentrazio-esparru batean atxiki zituzten. Handik bi hilabetera, Linas-Monthleryko esparrura eraman zituzten eta han osasun-baldintza beldurgarriak, hotz eta gose handiak jasan zituzten. «Eremu batetik igaro den orok ongi daki nolakoak ziren», gogoratu zuen gerora.

Gurasoekin ados jarrita, Raymond-ek esparrutik ihes egitea lortu zuen. 15 urterekin, Britainian babestuta, hango hainbat etxaldetan lan egin zuen. Aldian-aldian, familia preso zegoen esparrura itzultzen zen jakiak sartzeko.

Urtebete geroago, 1942an, familia barneratuta zegoen zentroa eraitsi egin zuten eta presoak Montreuil-Bellayra bidali zituzten, Estatu frantseko nomadak atxikitze eremurik handienera, hain zuten. Guremek bere familiarentzako kontrabandoko jakiak eremuan sartzen jarraitu zuen.



Raymond Gureme, preso politikoa izan zela erakusten duen akreditazioa agerian.

Bertrand GUAY | AFP

Orduan hasi zen Erresistentziarekin harremanetan, klandestinitatetik nazi aurre egiten zien sarearekin.

ALEMANIARA DEPORTATUA ETA BESTE IHES BAT

18 urte besterik ez zituela, 1943an atxilotu egin zuten, «terroristatzat» jo, Heddernheimera (Hesse) deportatu eta bortxazko lanak egitera zigortu zuten. 1944ko ekainean, Alemaniatic ihes egin zuen, «Erresistentziarako lanean ari ziren tren-langileei» esker, «lurren-makina bateko ikatz konpartimentuan gordeta ihes egiten lagundu baitzidaten», kontatu zuen Guremek berak.

Gerrak iraun zuen bitartean sei aldiz ihes egin zuen: «Linasko esparrutik, deportatu ninduten Alemaniako esparruetatik, Angerseko gazteentzako atxiloketa zentro batetik... Ihes egi-

tea, kosta ahala kosta aske izateko, nire erresistentzia modua zen».

Estatu frantsesera itzuli eta erresistentziarekin harremanetan jarri zen berriro. Nazien okupazioaren aurkako borrokan buru-belarri parte hartu zuen. 1944ko abuztuan gertatu zen “Samudaripen” izenarekin gogoratzen dituzten gertakarietako matxinada nagusietako bat. Auschwitzeko kontzentrazio esparruan giltzapetutako ijitoak beren zaindarien kontra matxinatu eta makila eta harriz armatuta eutsi zioten. Militar alemaniarrek matxinada menperatu ondoren, 4.000 ijito inguru hil zituzten kontzentrazio esparrua gaseztatuta. Zenbait egun geroago, Gureme Parisen zen, hiria askatu zuten tropen eta milizien parte.

Aliatuak Auschwitzera sartu zirenean, 1945ean, ez zegoen ijito etniako la-

gun bakar bat ere. Sarraskituta zeuden guztiak. Gerra amaitutakoan, familiaren bila ibili zen Raymond Gureme, baina 1950. urtera arte ez zituen aurkitu, Belgikan.

«EUTSI EGIN BEHAR DIOZUE»

Auschwitz-Birkenauko kontzentrazio-eremuan “Samudaripen” delakoa gogoratzeko egin zuen hitzaldi batean, bere bizitza eta borrokak errepasatzeaz gain, Guremek eusten jarraitu beharra aldarrikatu zuen: «Ez utzi zuen etorkizuna eroen esku. Eutsi egin behar diozue. Diskriminazioari, arrazismoari, Europa osoan ijitoek jasaten duten indarkeriari, jazarpenari aurre egin behar diezue».

FSG Ijito Idazkaritza Fundazioaren orrian irakurgai dago hitzaldi horren gaztelaniazko itzulpen bat.



Oier Gorosabel - @Txikillana

Fisioterapeuta

Kontrol lokusa

Azken asteetako fase aldaketen anabasan, norbanakook pandemiaren kontrolean dugun erantzukizunaren auzia ageri-agerian geratu da; azken finean, norbera bere osasunaren jabe edo menpeko izatearen hautua. Kontrol neurri gogorrek laxatu diren ba-koitzean bezala, jendea uhaletik askatu berriko txakurra bezala deskontrolatu da. Zorionez, euforia momentuon ondoren badirudi zentzuna nagusitzen dela eta jende gehiena segurtasun arauak nola edo hala betetzen hasten dela. Nola edo hala diot, ezen, oraindik begiak zuri jartzen baitzaizkit pertsona askok eskularruekin duten kaka-nahastea ikusita, edo eztula egiteko maskara jaisten dutenekin...

Osasunaren autogestioaren bultzatzaile garen neurrian, “kontrol lokusa” kontzeptua garrantzitsua da. Nork darama zure osasunaren kontrola: zuk zeuk ala beste inork? Lehen kasuan, “barneko kontrol lokusaz” hitz egingo genuke, eta, bigarreanean, “kanpoko kontrol lokusaz”. Askotan, osagileok “gehiago” dakigunaren aitzakian, pazienteak bere osasunaren ardura guztia gure gain uzten du. Horrek baditu bere alde onak eta txarrak. Egoera hori oso praktikoa eta eroso izaten da, bai pazientearentzat bai osagilearentzat: guk bezero otzan bat dugu, gure esanetara dagoena, eta ez diguna inolako arazorik ematen; pazientearentzat ere egoera oso eroso da, bere bizitzan ezer aldatu barik, kontsultara etorri eta ohatilan plaust etzan baino ez duelako egin behar, dena gure esku utziz. Baina kanpoko kontrol lokusak alde iluna du: pazientearen ignorantzia; osagilearekiko menpekotasuna; engainurako erraztasuna... Kontrol lokusa barruan duten pazienteak, berriz, maneiatzeko zailagoak izaten dira: burujabeak dira eta osagileok egiten duguna gainbegiratzaren dute; beraien iritzia eta nahiak aditzera ematen dituzte; gure jarduera arrazoitzeke eskatzen digute... eta, horren ondorioz, arreta hobia eskuratzen dute. Nik, bistan denez, azken hori nahiago dut; ez da pazien-

te-ardiak tratatzea bezain eroso, baina emaitzak nabarmen hobeak izaten dira.

Zorioneko koronabirusaren eremura itzulita, azken hila-beteotan sare sozialetan kristorenak eta bi bota ditut osasun autoritateen aginduen jarraitzaile itsuen kontu-ra. Estu hartuko gaituen aginte bat ahoz gora eskatzen ari-tu den jende askok (“*vivan las caenas!*”) begi onez hartuko luke diktadura bat. Izan ere, kontrol lokusa kanporatzeak hori dakar: arazoaren larritasuna ulertzen ez baduzu, se-gurtasun neurriak ezartzen ez badakizu, ez bazara gai be-reizteko noiz jantzi behar den maskara eta noiz ez... derri-gorrez polizia bat behar duzu gainean, etengabe, oso urrun diseinatutako –eta ez preseski zure neurriko– araudi bat aplikatzen, horrek dakartzan arazoekin.

Joan diren egunotan aipatutakoaren adibide esperpenti-ko sorta polita izan dugu: eskularruen derrigorrezko erabi-lera ezarri duten saltokiak (gero dena kontrolik gabe uki-tzeko); bakarrik dauden pertsonen kargu hartzea ezin daitekeelako paseatu, bai ordea jendez betetako taberna batean zerbait hartu; konfinamendu neurri berberak ezar-tzea hiribildu handietan eta baserri eremuetan; zurekin lo

egiten duen bikotekideari paseatzeko maskara janz-teko agintzea, baina, jaki-na, sudurra maskara ba-rruan edo kanpoan darabilen gainbegiratu ga-be; poliziei gauzak noiz eta non egin daitezkeen galde-tzea, eta poliziok hori “zein agenterekin aurkitzen za-ren araberakoa” dela eran-tzutea... Noski, horrelako neurrien inkoherentzia ezin daiteke poliziarekin eztabaidatu, haien lana ez delako pentsatzea, arauak itsuki betetzea baino. Kon-tua da herritarrek zentzu-na erabiliz gero –arazoa ezagutuz, prebentzio neu-rriak ulertuz, erantzukizu-nez jokatzuz– ez litzatekeela horrelako jazarpenik behar izango osasun publikoa ziurtatzeko. Gizarte-heldu-tasun kontua da. •



Gizarte-heldutasuna gako garrantzitsua da. Juan Carlos RUIZ | FOKU

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Dogma zaharkituetatik kontraesan berrietara

Dogmaz beteriko mundua astintzera etorri da pandemia. Duela hiru hilabete eskas indarrean ziren irizpide sakratu asko, egun batetik bestera baliorik gabe gelditu zaizkie beren defendatzaileei eta ziztu bizian alboratu behar izan dituzte, errukirik gabe, negar egiteko denborarik ere ez dago-eta.

Ekonomiaren esparrutik hasita, austeritatearen zaindari zorrotz izandako Europar Batasunak lehenik defizit arauak indargabetu zituen eta orain 750.000 milioi euroko plana bideratzeko prest ageri da; dirua bazen gero, eta ekonomia bizkortzeko tresna publiko baliogarriak ere bai. Estatu espainolean oinarritzko errenta sortu da estreinakoz, PSOE-UPren Gobernuak uste eta nahi baino dezente lehenago, eta zein eta EH Bildu hartu du bidai-de Rajoyren lan erreforma ezabatzeko bidean. Estatu frantsesean, 200 euro musu truk emango dizkie Edouard Philipperen Gobernuak 25 urtez azpiko 800.000 gazteri. Totem handiak dira ziplo erortzen ari direnak.

Gizartearen uste sakon ugari ere hondoratu dira. Nagusia: geure adinekoak eta ezgaituak duintasunez tratatzeko aurrerapausoak ematen ari omen ginen, baina, bat-batean, hiltzen utzi ditugu, bakar-bakarrik askotan. Slavoj Zizek pentsalariak seinalatu duenez, gerratan larrien zauritutakoak izan ohi dira artatutako lehenak, baina oraingo hau gerra konbentzional bat baino krudelagoa gertatu da askotan. Zaintza lanak emakumeen eta gizonezkoen artean era parekideagotan banatzeko ere lanean ari omen ginen, baina hezkuntza presentzialaren etenak eta telelanak oraindik astunago bilakatu dute ama askok bizkar gainean zaramaten zama. Garraio publikoa etorkizuna zela esaten ari ginen, eta orain nor bere ibilgailu pribatuan mugitzeko agindu digute. Eskola askotan hormak botatzen ari ziren, eredu modernoek hala eskatzen zutelako, eta orain berriz eraikitzea egokiagoa omen da. Presoak be-

ren segurtasuna bermatze aldera isolatu dituztela ziurtatu dute, baina are urrutiratuago eta bakartuago utzi dituzte horrela.

Txertoak susmagarri zirelakoan ari ginen eta orain txerto bat da guztion itxaropen bakarra. Osasuna ez zen gizartearen kezka-zerrendetan azaltzen eta, ustekabea, denbora luzerako guztion beldur nagusi bihurtu da. Klima aldaketa oraindik epe erdiko mehatxutzat baino ez genuen eta bat-batean naturaren eta gizakiaren arteko talkaren ondorioa begi bistan jarri zaigu krudelki. Zientzia frikikeriatzat hartzen hasita ginenean, zientziaren beharra gailendu da beste edozeren gainetik. Dibertsioak zirudien historiaren motorra egun, baina, aitaren batean, akabo dibertimendua!

Duela hiru hilabete eskas sakratuak ematen zuten irizpide asko aitaren batean alboratu behar izan dituzte beren defendatzaileek, gupidarik gabe askotan. Eta sektore guzti-guztiei gertatu zaie

Autoritarismoa zen mundu osoan eman beharreko borroka eta autoritarismo gardenena jasatea egokitu zaigu, alarma egoerarena. Eskuduntzak banan-banan negoziatzen ari zirela, goizetik gauera autogobernu gutia aginte bakarraren mesede nola ezabatu duten ikusi dugu, 155. artikulua irrigarri utziz. Gazteak euskal erreferentziak barneratzen ari zirela pentsatzen genuenean, estatuen ahotsa baino ez zaie entzunarazi. Muga berririk ez dela altxatu behar temati esaten duten horiek dira euskal muga berriz itxi dutenak.

Kontraesanak kudeatzea egungo politikagintzaren behar nagusietako zela maiz aipatzen ari zen unean, nork bere kontraesanak aurrez aurre topatu ditu, salbuespenik gabe. Ez dago bere konfort gunean eroso gelditu ahal izan den gizaki edo sektore politikorik. •

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA, BIRUSARI SO

Alor guztietako ikertzaileak, egiten ari zirena utzi eta gaitzari begira jarriak

 **OSASUN LARRIALDIA** / Amagoia Mujika Telleria

Covid-19 gaitzak mundua gerarazi du eta mundutarrak arnasari eutsita eduki ditu eta ditu oraindik. Denak begi hutsez ikusten ez denari begira. Arlo guztietako ikertzaileak egiten ari zirena alboan utzi eta gaitzari begira jarri dira, bakoitza bere ertzetik eta bere erremintekin. Den-denak helburu berarekin; osasun larrialdia samurtzen laguntzea. Batzuk datuak sortzen, beste batzuk datu horiek ordenatzeko eta iragazteko tresnak garatzen, beste batzuk datu horiek herritarrengana ahalik argien helarazten... Lehen lerroko lana izan da, ezinbestekoa. Eta askotan jendarteari hain urruna eta arrotza zaion ikerkuntza zein beharrezkoa den konturatzeko balio izan du.

Alor guztietako zientzialariak esku artean zutena alboan utzi eta Covid-19ari begira jarri dira. Teknologiaren alorrean eta bereziki adimen artifizialaren eremuan dabilzanak berdin. Muturreko osasun larrialdiaren aurrean, zientzia eta teknologia jo eta su aritu dira, beren jakintza-tik eta beren erremintekin olatua geratu nahian edo, gutxienez, ondorioak samurtu nahian.

Covid-19aren inguruko ekoizpen zientifikoa sekulakoa izan da, egunean berrehun artikulua inguru sareratu dira, askotarikoak. Zientzia dibulgatzaileek ere sekulako lana egin dute ekoizpen horretatik informazioa jaso, ordenatu eta gizarteratzen. Datuen zaparrada horretan ezinbestekoa izan da dibulgatzaileen lan pedago-

gikoa. Izan ere, gizarteari eskatu zaion muturreko konpromisoak trukean hori behar zuen; informazio zuzena, egiazkoa, txukuna. Jendarte informatua jendarte arduratsua delako.

Mundu osoko gobernuek «ebidentzia zientifikoaren baitan» hartutako erabakiak saldu dituzte, nahiz eta batzuetan besteetan baino pisu handiagoa izan duen zientziak. Baina normalean hain modu ezkutuan eta prekarioan egiten den ikerkuntzak, finantzaketa bide korapilatsuak izan ohi dituen zientziak, lehen lerroko protagonismoa izan du eta du osasun larrialdi honetan. Oraintxe foku guztiak txertoaren ikerkuntzan daude jarriak. Eta beste alorretako ikertzaileek ere begi bat gutxienez koronabirusari begira daukate. Denek espero dute foku horrek piztuta segitzea gero ere.

ANA GALARRAGA Aiestaran

«Hain muturreko egoerak onartzeko, ulertu egin behar duzu zergatia»

Zientzia-komunikatzailea da Elhuyarren. Koronabirusaren krisian, lehen lerroan aritu da datuen zaparrada ahalik modu garbieran herritarren esku jartzeko. Herritarrak erantzun «garbiak eta erabatekoak» eskatzen ditu, baina egoera berria eta dinamikoa denean, etengabe aldatzen denean, hori ez da batere samurra. Korapilatsua izanagatik, Galarragak beharrezko ikusten du informazio osoa ematea, hori baita herritar arduratsu eta kritikoak izateko bidea.

Zientzia komunikatzen duenak, datuak jendarteratzen dituenak, zein iturritatik edaten du horrelako muturreko egoera batean?

Kasu honetan berritasuna egon da. Mundu osoko laborategi denek, ikertzaile guztiek, albo batera utzi dute egiten ari zirena eta koronabirusari begira jarri dira. Denak, baita espezialistak ez direnak ere. Ez zen birologoa izan beharrik honi begira jartzeko, alde batetik ez bada bestetik, zientzialari guztiek heldu diote gaiari. Eta sortu duten informazio hori guztia denon eskura jarri dute, beste ikerketa arloetako zientzialariak ere izan zezaten. Horrek uholde izugarria ekarri du. Zientzian normalean argitaratzeko erabiltzen den sistemak iragazki ugari izaten ditu. Baina, kasu honetan,

iragazki horiek gabe, zientzia aldizkariak eta modu irekian –normalean eduki horiek ordaindu egin behar izaten dira– denon eskura jarri dute informazioa. Horregatik uholdea izugarria izan da. Alderdi horretan luxu bat izan da. Baina lan handia izan da datu sendoak zeintzuk ziren bereizten.

Egunero ehunka artikulua sareratu dituzte zientzialariak.

Bai. Batzuk oso teknikoak. Informazio tekniko batek jendearentzat ez dauka interes berezirik. Gizarteratu beharrek da, batez ere, herritarrek izan ditzaketenez kezkak erantzuten eta lasaitzen laguntzen duen informazioa. Krisi egoeran gaude eta beldurra oso arriskutsua da. Gizartea manipulatzeko arma ikaragarria da beldurra eta arduraz jokatzeko duen edozein kazetarik hori kontuan hartuta egin behar du lan; ez beldurra areagotzen, justu kontrakoa baizik. Gainera, eskatu dizkiguten prebentzio neurriak zenbat eta barneratuago eduki, zenbat eta hobeto ulertu eta bat egin horiekin, orduan eta errazago eramaten dira. Hain muturreko egoerak onartzeko prest egoteko, ulertu egin behar duzu zergatik, zein den arriskuaren tamaina eta zer ekarriko lukeen neurri horiek

ez betetzeak; araua puskatzeak zein kalte dakarren eta zein onura araua betetzeak. Hori gako garrantzitsua izan da lehen asteetan.

Jendarte informatua, arduraz jokatzeko eta iritzi kritikoa izateko.

Nik guztiz sinisten dut horretan eta nire ahaleginak bide horretatik joan dira. Jendeak neurriak har ditzala jakinda zergatik hartu behar dituen. Eta kritiko izateko, desadostasuna adierazteko, informazioa garrantzitsua da. Adibidez, bi hilabetez etxean itxita egon ondoren terrazak irekitzen badituzte, baina ez pasealekuak, horren atzean zer dagoen ulertzeko garrantzitsua da informazioa izatea. Horren atzean arrazoi zientifikorik ba al dago? Izan ere, ez badago presioa egin daiteke. Eta presio horren ondorioz etorri dira zenbait erabaki.

Adibidez, haurrei lehenxeago ateratzen uztea. Eta horren atzean arrazoi zientifikoak egon dira; haurrak ez direlako helduak bezain erraz gaixotzen eta kutsatu ere –nahiz eta hasieran horrela uste zen– ez dutelako hain erraz egiten. Hartara, arrazoi zientifikoak baldin badaude, zure presioa arrazoituagoa izango da eta eraginkorragoa.

Ziurgabetasuna, ezjakintasuna, egun batean



«Txertoaren
ikerketa bide onetik
ikusten dut, gaitzak
berak aukera
ematen baitu
defentsen bidez
sendatzeko»

gaixotasun batzuetan eman dena baino altuagoa. Ziurgabetasun ekonomikoa izugarria da. Beste osasun krisi batzuek ez dute ekarri mundu mailako beherakada ekonomikoa eta horrek ere eragiten du. Nik ez dut ikusten non atera garen indartuta.

Ez zara oso baikorra.

Ez, egia esan ez. Horretan oso zientzietakoa naiz eta ez dut baikorra izateko ebidentziarik ikusten. Baikorra naiz, hori bai, txertoaren kasuan. Aurrerapauso oso handiak ematen ari dira eta badaude lortuko dutela dioten zantzuak. Beste gauza bat izango da txertoa beharrezkoa izango ote den. Akaso birusa bera gugana egokitu eta endemiko bihurtu daiteke. Horrela ez litzateke hain gaiztoa. Hori ere gerta daiteke. Baina, horrela gertutako ez balitz, txertoaren ikerketa bide onetik ikusten dut, gaitzak berak aukera ematen baitu defentsen bidez sendatzeko.

Adibidez, hiesaren kasuan, inor ez da sendatu. Botiken bitartez lortzen da gaitza kontrolatzea, birusik ez izatea odolean eta ez kutsatzea. Mendebaldeko ekonomia aberatsetan hori lortu da, baina txertorik ez. Zergatik? Gorputzak berak ez duelako bere kabuz hiesa gainditzea lortzen. Koronabirusa bai, jende asko eta asko sendatu da eta beste asko asintomatikoak dira eta badauzkate defentsak. Horrek esan nahi du gorputzak berak badaukala ahalmena gaitzari aurre egiteko. Hartara, txertoen bitartez defentsa hori aldeaz aurretik posible izatea bilatzen da. Itxaropena alde horretatik badaukat.

**gauza bat eta hurrengoan
bestea esatea... zientzialarien
artean ere sumatu da hori.**

Bai, nahiz eta ez dakidan hori oso ondo onartu den. Bai zientzialariak eurek –finantzazioa lortzeko– eta baita zientziaren komunikazioan dabiltzanek ere –salgarriagoa delako–, komunikabideen bitartez zientziaren arrakastak saldu dituzte, kasu arrakastatsuak. Horrek sinistarazi du zientziak dena ahal duela eta dena ondo egiten duela. Edo, behintzat, lorpen ikaragarriak ahaleginik gabe eta berehala lortzen dituela. Atzean geratzen dira, ezkutuan, inora ez daramaten zenbat bidezidor esploratu diren, zenbat saiakera dauden lorpen bakoitzaren atzean. Horregatik, iruditzen zait zientziaren irudi faltsua osatu dela, kasik magikoa balitz bezala. Eta horregatik normala da jendeak zientziari bat-bateko erantzunak eta irtenbideak eskatzea, irudi hori saldu delako. Finantziazioa lortzeko, aldizkari zientifikoetan argitaratuak

izateko, prestigioa lortzeko... saldu da irudi hori. Azken finean, horrek ekartzen dizu bizirauteko eta zure ildoan ikertzen jarraitzeko aukera. Ezkutatu egin dira edo ez dira nabarmendu bidean geratu diren saiakera guztiak. Eta horregatik zientziak nola funtzionatzen duen azaldu behar izan da orain; zientziak bere epeak ditu, hipotesiak planteatzen ditu, denbora behar da hipotesi horiek zuzenak edo okerrak diren ikusteko, okerrak direnak baztertu egiten dira... hori etengabe gertatzen da.

Gainera, gauza bat da birusa bera ezagutzea –eta birusa berria da– eta beste gauza bat jendearen portaeraren arabera birusak izan dezakeen dinamika aurreikustea. Bigarren hori jendearen eskura dago eta oso zaila da, konplexua. Horrek ziurgabetasuna sortzen du, noski.

**Behintzat, garbi geratu da
zein garrantzitsua den
zientzia ondo komunikatzea,
ezta?**

Zalantzarik gabe. Baina uste dut hutsune asko gertatu direla horretan, bereziki orain. Mezu kontrajarri asko izan dira eta eredu izan behar duten agintariak ere ez dute ondo jokatu kasu askotan. Jendea nahastu egin dute. Uste dut, gainera, hasieran erreferente izan ziren zientzialariak eta komunikatzaileak ahazten ari direla eta analisi politiko eta ekonomikoetara pasatzen ari garela. Ikusi besterik ez dago gaurkotasuneko zein beste gai gailendu diren. Dagoeneko hartzen ari diren erabakiak ez dira oinarritzen ikuspegi zientifikoan, ikuspegi politiko-ekonomikoan baizik, eta hori oso arriskutsua da. Eta kasu horretan komunikazioa dagoeneko ez da garbia, beste interes batzuk gailentzen ari direlako. Ez dut esan nahi lehen ere ez zeudenik interes horiek, baina osasun larrialdi egoera bat zen, hildako asko zeuden egunero eta ez zuten beste erremediorik.

Ikusi Boris Johnson, ez zuen

konfinamendurik ezarri nahi ondorio ekonomikoak izango zituelako, baina azkenean ez zuen beste erremediorik izan.

**Zientzia berriz bigarren
lerroan ikusten duzu, beraz.**
Bai, garbi.

Zein unetan gaudela uste duzu? Baikortasuna sumatzen da, gehiegi laxatzeko arriskua ere bai...
Bai, eta neurri batean normala da. Pasatu dugunaren ondoren, tunelaren amaierako argia ikusi nahi dugu eta bizi ere egin behar dugu. Baina ez da egia gainditu dugula, birusa ez da desagertu. Espainiako Osasun Ministerioak erabiltzen duen leloa, “*salimos más fuertes*”, gezurra da. Eman adibide bakar bat zeinetan irabazten atera garen, ez dago adibide bakar bat. Osasun langileak sekulako antsietate tasarekin daude, %80 ingurukoak erietxetan egin diren ikerketen arabera. Estres postraumatikoa sekulakoa da. Ebola eta bestelako

JON ANDER CAMPOS

«Egoerak balio izan du munduari erakusteko ikertzaileen lana ez dagoela errealitatetik hain urruti»

AEBetako Gobernuak bultzatutako Covid-19 gaixotasunaren inguruan antolatutako adimen artifizialeko txapelketan saria jaso berri du Ixa ikerketa-taldeak. Ehunka parte hartzaile izan dira, hamar sari banatu dira nazioartean eta horietako bat Euskal Herrira etorri da. Egunero ehunka artikuluko zientifiko sareratsen dira Covid-19aren inguruan. Hartara, gaixotasunaren aurka borrokan ari diren zientzialariei laguntzeko, literatura zientifiko horretan lagungarri zaien informazioa ahalik eta errazen bilatzeko sistema bat garatu du Ixa ikerketa taldeak. Bertako ikertzailea da Jon Ander Campos.

Zein helburu dauka saritua izan den sistemak?
Gaur egun koronabirusaren inguruko artikuluko pila bat argitaratzen da egunero. Guk garatu dugun sistemaren helburua da artikuluko zientifiko horiek automatikoki tratatzea –hizkuntzaren prozesamendua erabiliz– ikertzaileen komunitateari lagundu ahal izateko. Pertsona batentzat ezinezkoa da egunero argitaratzen diren

ehunka artikuluko banan-banan irakurri eta aztertzea.

Iragazki bat balitz bezala?
Aipatutako arazo horri aurre egiteko modu desberdinak zeuden. Gure proposamena izan da galdera-erantzun moduko sistema bat garatzea. Hartara, ikertzailea sistemara joan eta bere intereseko galdera egingo dio. Sistemak galdera horren erantzuna topatuko du eta adieraziko dio zein artikulutan eta zein paragrafotan topatu duen. Horrez gain, artikuluko osoaren lotura ere eskainiko dio, ideia horretan sakondu nahi izanez gero. Hori da gutxi gorabehera gure sistemaren ideia.

Izan ere, ekoizpen zientifiko izugarria ematen ari da koronabirusaren inguruan.
Bai, sekulakoa. Gutxi gorabeherako azterketa bat egin genuen eta txapelketaren hasieran 50.000 artikuluko zeuden. Baina bi egunero eguneratzen zuten eta eguneko 200 artikuluko berri igotzen zituzten. Pentsa pertsona batentzat zer den 200 artikuluko zientifikoren jarraipena egitea egunero. Gainera, normalean artikuluko zientifikoak hamar orrialde



«Orain arte ikerkuntzaren gainean apenas zegoen fokurik. Orain presa izugarria dago txertoa lortzeko eta foku asko jarri dira ikertzaileen gainean»

baino gehiago izaten dituzte eta eduki oso sakona. Pertsona batentzat, are talde batentzat, ezinezkoa da ekoizpen horren jarraipena egitea. Gure sistemaren helburua da ikertzaileen komunitateari artikuluko horien jarraipena egiten erraztea.

Orokorrean adimen artifizialak zein toki izan du

krisi honetan?
Ikusi da eta hurrengo hilabeteetan ere ikusiko da ez bakarrik adimen artifizialak, baizik eta ikerkuntza guztiak sekulako garrantzia daukala. Medikuntzari lotutako ikerkuntzak garrantzia izan du, noski, baina baita beste alor askotakoak ere. Gure kasuan hizkuntzaren prozesamenduan aritzen gara.

Hasiera batean txerto baten ikerkuntzatik oso urruti ikus daiteke alor hori, baina frogatu da era honetako tresnekin txertoaren ikerkuntzan dabiltzanei laguntzeko modua daukagula.

Azkenean alor asko elkar korapilatuta daude, ezta?

Bai. Bakoitza bere ikerkuntzan ari gara buru-belarri, baina horrelako mundu mailako arazo orokor baten aurrean, diziplina desberdinetako jendea horri begira jarri gara eta indarrak batu ditugu denoi eragiten digun arazo baten aurrean konponbideak topatu nahian.

Ikertzaileen borroketako bat da jendarteari ulertaraztea egiten duzuen lana denon mesedetan dela. Muturreko egoera honek balio izan du hori bistaratzeko, ezta?

Gure helburua bada egiten dugunak aplikazio errealak dituela erakustea, gizartearen onurarako dela erakustea. Zalantzarik gabe, horrelako egoera batek balio du munduari erakusteko ikertzaileen lana ez dagoela errealitatetik hain urruti eta benetan balagarria dela denontzat.

Txarreanean, horixe ona.

Bitxia da. Orain arte ikerkuntzaren gainean apenas zegoen fokurik. Orain presa izugarria dago txertoa lortzeko eta foku asko jarri dira ikertzaileen gainean. Espero dezagun interes hori ez izatea puntuala eta gerora ere denboran zehar mantentzea. Horrelako gauzeekin konturatzeko positiboa izan da.

Eta ikertzaileentzat

pizgarria?

Bai. Gure lanean ari garenean galdetzen diogu gure buruari ea egiten ari garenak aplikazio errealik ba ote duen, ea norbaiti laguntzeko balio ote duen. Horrelako egoerak bultzada dira ikertzaileentzat, gure lanari zentzua ematen diote. Ikerketan, orain planteatzen den bezala, epe motzeko helburua zure lana konferentzia batean edo aldizkari batean argitaratu ahal izatea da. Askotan horretan geratzen da. Koronabirusaren inguruko ikerketak badauka beste akuilu bat, zure lana uneotan benetan lagungarria izan daitekeela konturatzea.

Koronabirusak asko baldintzatzen al du uneotan ikerkuntza orokorrean?

Bai. Esango nuke ikertzaile talde guztiek begi bat koronabirusaren gainean jarrita daukatela.

Sariak zein esanahi dauka Ixa ikerketa taldearentzat?

Sariak zekarren dirulaguntza ez dugu jaso, medikuntza alorrera bideratu dugu. Baina, aldiz, sariari esker gure taldeaz hitz egiten da eta horrek balioa ematen dio egiten dugunari. Taldea mapan jartzen laguntzen du eta indarra ematen digu aurrera begira.

EHUko taldea zarete, euskararen bueltan sortua eta euskara ardatz duena. Eta mundu mailako sariak pilatu eta pilatu ari zarete.

Bai, eta harro gaude. Taldeak oso presente dauka zergatik sortu zen, teknologiaren munduan euskararen presentzia ziurtatzea izan da helburua beti eta hori buruan daukagu.

ENEKO AXPE

«Orokorrean, gobernuen erabakiak ebidentzia zientifikoan eta datuetan oinarritu dira»

Fisikaria da. Bi master eta doktoretza ditu osatuak. Doktoretzan bi egonaldi egin zituen Oxfordeko Unibertsitatean 2014an eta 2015ean. Handik Cambridgeko Unibertsitatera joan zen, klaseak ematera eta ikertzera. Eta handik Stanfordeko Unibertsitatera eta NASara salto egin zuen. Bertan daramatza bi urte eta erdi, Kalifornian. «Justu pandemia hasi aurretik, Biosegurtasun eta Bioterrorismo klasea hartu nuen Stanfordeko Unibertsitatean, hiru hilabetez. AEBetako profesional bikainak etorri ziren –besteak beste, Etxe Zurian lan egin zuten segurtasun adituak eta epidemiologoak– geroago gertatutakoaren antzeko zerbaiten aurrean nola erantzun azaltzeko».

Duela egun batzuk Nasak bere “Space App-Covid-19 Challenge” inkubazio berrikuntza programan aditu bezala lan egiteko aukeratu du.

Sare sozialetan izugarrizko pedagogia lana egiten ikusi zaitugu. Zenbaki eta datu saltsan, beharrezkoa?

Nik uste dut oso garrantzitsua zela jendeari

gertatzen ari zena ondo ulertzen laguntzea; bai aurrerapen zientifikoen berri ematea eta baita zenbakiak ulertzen laguntzea ere; R(t)ak zer esan nahi duen, maskara eraginkorra ote den partikulen tamainaren arabera, hildakoen zenbatekoak, kasu berriak, kasu aktiboak... Eredu matematikoez laguntzen dute egoera ulertzen, kopuruak aurreikusten... Baina datu saltsa horretan hutsuneak ere bazeuden eta saiatu naiz zubiak eraikitzen, gobernu desberdinetatik zetozen datuak ulertzen laguntzen eta aurrerapen zientifikoen berri ematen.

Zenbakien eta datuen

«Datu pila bat egon dira eta egongo dira eta horrek herritarra zoratu egin dezake. Garrantzitsua da datu horiek azaltzeko prest dauden adituak egotea»

pandemia izaten ari da. Batzuetan gehiegizko informazioak nahasmena sor dezake, ezta?

Bai, nik ulertzen dut zenbakien eta datuen pandemia izaten ari dela, batez ere birus berria delako eta datu epidemiologiko guztiak oso arin etorri zirelako. Baina, era berean, ez genekien datuen kalitatea ona ote zen. Bai, datu pila bat egon dira eta egongo dira eta horrek herritarra zoratu egin dezake. Horregatik, oso garrantzitsua da datu horiek azaltzeko prest dauden adituak, zientzialariak, komunikatzaileak egotea. Eta Euskal Herrian egon dira. Guztion artean datuak eta informazioa ahalik argien azaltzen saiatu gara.

Zientzialarientzat, interesgarria al da horrelako pandemia bat?

Niretzat interesgarria edo beharrezkoa laguntzeko premia izan da. Hasieran ikusten nuen pandemia nola ari zen igotzen esponentzialki eta ni ohituta nago datuak aztertzen. Horrelako hazkunde esponentzial bat ikustean laguntzeko behar bat sentitu nuen; analisiak egiteko, balioztapenak



Zer ikasi beharko genuke ikusitakotik?
Nire ustez munduko izkina guztietako gobernuek egin duten akats nagusia izan da zaharren etxeak behar bezala ez babestea. Hego Euskal Herrian 812 pertsona hil dira zaharren etxeetan. Harrigarria bada ere, hildako guztien %40 dira. Ezin ditugu iraganeko akats berberak errepikatu. Neurriak asko indartu behar dira zahar etxeetan. Zahar etxeak blindatu egin behar dira: PCRak egin sartzen diren langile eta bisitari guztiei, edota pertsona zaharren kopurua jaitsi etxe bakoitzeko posible balitz, esate baterako.

egiteko, datuak interpretatzeko... Eta iruditzen zait zientzialari guztiek bultzada bera izan dugula. Epidemiologoak eta biologoak jarri behar dira ardatzean, erdian, baina haien alboan matematikariak daude, adimen artifizialeko ikerlariak, fisikariak... Beraz, zientzialariontzat, interesgarria baino gehiago, beharrezkoa zen arin eta ondo laguntzea eta datu horien analisisa ondo egitea.

Komunitate zientifiko osoa irudikatzen dut datu eta datu artean.
Bai. Nire ustez krisi honek balio izan du gizarte osoa konturatzeko zein garrantzitsua den zientzia

eta teknologia. Zientziatik etorriko da txertoa; zientziaren bidez etorriko dira botikak, zientziaren bitartez etorriko dira farmakologikoak ez diren neurriak eta ebatziko da zeintzuk diren onenak pandemia geldotzeko. Adibidez, orokorrean ebidentzia zientifikoan eta datuetan oinarritu dira gobernu desberdinetan hartutako erabakiak. Espero dut honek balio izatea jendea konturatzeko zientzia, ebidentzia zientifikoa, datuak eta metodo zientifikoa direla benetan laguntzen gaituztenak.

Oraintxe, zein momentutan gaudela uste duzu?

«Nire ustez munduko izkina guztietako gobernuek egin duten akats nagusia izan da zaharren etxeak behar bezala ez babestea»

Hartutako neurri guztiekin asko jaitsi da kutsatu berrien zenbakia eguneko. Konfinamendua oso neurri ona izan dela ematen du, gutxienez birusaren hedapena oztopatzeko eta orain ezin gara asko erlaxatu. Ez da ziurra oraindik, baina ematen du tenperatura altuagoek birusaren hedapena oztopatzen lagundu dezaketela. Baina ez dakigu zein neurritan. Gizarte bezala ezin gara lasaitu. Beste neurri batzuekin jarraitu behar dugu. Distantzia soziala mantendu behar da, maskararen erabilpena oso neurri merkea da, etxean egin daitezke. Kasu berriak egongo dira baina ez dakigu zenbat. Beraz, zentzuz jokatu behar dugu, puntu horretan gaude orain.

AEBetan nola doa pandemia?
AEBetan neurriak hartzeko boterea gobernadoreetan dago, estatu bakoitzeko agintarietan. Beraz, oso asimetrikoak izan dira hartutako neurriak. Eta birusak ere desberdin jo du tokiaren arabera. Adibidez, New York hirian oso gogor jo du. New York estatuko leku batzuetan herritarren %20 kutsatu dira eta hildako kopurua sekulakoa izan da. Eta San Frantziskon adibidez, “oso jende gutxi” hil da, 40 pertsona. Eta kontuan izan ia milioi bat biztanle bizi garela bertan. Euskal Herrian 100 hildako egon balira bezala litzateke, eta Hego Euskal Herrian 2.000 hildako egon dira. Kalifornian ez du hain gogor jo.

DENBORAPASA

Kontuan izanik arratsaldeko 19:45 direla, pertsonen artean 2 metroko tarte utzi behar dela eta, bestela, maskarila erabili behar dela, nondik pasa behar du Mariadoloxek bere etxera iristeko?



Soluzioa: Hor konpon, hemen aspaldian bakoitzak sudur-puntan jartzen zaiona egiten du eta. Orain ajiola duen bakara hauteskundeak dira.



Alai
ZUBIMENDI

iRRITZIA:

DATORREN KONTSUMOA

Pandemia ondoko kontsumitzailea nolakoa izango den aztertu dute UOCeko adituek

Argi dago kontsumitzaile askok *online* erosketak probatu dituztela krisi honen ondorioz, eta eurentzat aukera eroso eta segurua dela ohartu dira. Esperientzia horrek bezero bakoitzaren lineako kuota handituko du», azaldu du Juan Carlos Gazquez-Abadek, UOC Kataluniako Unibertsitate Irekiko Ekonomia eta Enpresa Ikasketetako irakasle laguntzaileak. Apirilean Estatu espainolean kontsumo handiko lineako erosketek %40 erosle gehiago lortu zituzten 2019an baino.

«Konfinamenduaren ondorioz, Internet bidez gutxien erosten zuen biztanleria-segmentua, 55 urtetik gorakoena, horrela gehien erosi behar izan duena bihurtu da, batez ere 70 urtetik gorakoen kasuan, horiek baitira gaixotasunarekiko zaurgarrienak», nabarmendu du Neus Solerrek, UOCeko Ekonomia eta Enpresa Azterlanetako irakasle laguntzaileak.

Kantar aholkularitza-enpresaren datuen arabera, erosketasaskien tamaina handituz joan da astero, eta adin-profil guztiek pisu gehiago hartu dute, baita produktu freskoen kategoriek ere. «Produktu freskoen lineako salmenta ez da guztiz mamitu, produktu mota hori bertatik bertara erosi nahiago baitzuen kontsumitzaileak, baina konfinamenduak mesede egin dio; kontsumitzaileak ikusten badu etxean jasotzen duen produktuak bere aurreikuspenak betetzen dituela, oso litekeena da krisiaren ondoren ere horrela jarraitzea», azaldu du Solerrek.

Berrogeialdia igarotakoan, kontsumitzaileak beren errutinara itzuliko dira ala ohitura berriei eutsiko diete? «Segur as-

 **PANDEMIIA** / Nuria Bigas Formatie (UOC)

Pandemia hasi zeneko komuneko paperetik tindagaira, irinetik igarota, Covid-19 gaixotasunak eragindako krisi honetan kontsumitzaileak aldatu egin ditu bere kontsumoa eta erosketak egiteko modua. Baina nolakoa izango da pandemiaren ondorengo kontsumitzailea? Adituek emandako zenbait pista eskaintzen ditu artikulu honek.

ki, kontsumitzaile nagusiago horrek Internet bidez erosten jarraituko du, beldurra galdu baitu; adinekoek gaintu egin dute merkataritza elektronikoa sortzen zizkien segurtasun-eza eta mesfidantza, eta eroso dela egiaztatu dute», erantzun du Solerrek.

PROGRAMATUA ETA AUTOMATIKOA

Merkataritza elektronikoa (*e-commerce*) ez da konfinamenduan jarraitzaile gehiago lortu dituen bakarra. «Covid-19aren

egoerak merkataritza elektronikoa bultzatu du, baina baita merkataritza automatizatua ere, batez ere kontsumitzailearentzat eroso delako», dio Xavier Garciak, UOCeko Ekonomia eta Enpresa Azterlanetako irakasle laguntzaileak. Merkataritza automatizatua (*a-commerce* edo *automated commerce*) erosteko modu bat da. Bezeroak erosketak jakin bat programatu eta prozesua automatizatzen du, berriro egin behar izan gabe. Normalean, ohi-

Konfinamenduaren ondoren, kontsumitzaileak beren errutinara itzuliko dira ala ohitura berriei eutsiko diete?
John Cameron | Unsplash

ko produktuak erosteko erabiltzen da. «Badaude egunerokotan behar ditugun balio gutxiko produktu batzuk falta direnean baino erosiko ez ditugunak: garbiketa-produktuak, elikagai jakin batzuk... Eskatzen ibili gabe eta maiztasun egokian iristen badira gure etxera, denbora eta arazoak aurreztuko dira», dio Garciak. Hark dioenez, merkataritza automatizatuko operadore handiek beren algoritmoak doitzea lortzen badute, askoz etxe gehiagotan ezarriko da. «Gainera, operadoreek kontsumitzaile bakoitzaren erosketak kopurua aurreikus dezaketez, salneurri lehiakorragoak eskainiko dituzte», adierazi du.

Baina pandemiaren ondorengo kontsumitzaileak ez du Internet bidez bakarrik erosiko: adituek uste dute kontsumitzaileak alderdi duala izango duela, lineakoa eta presentziala. «*Online* erosten jarraituko du, jende askok saltoki handietara joateko beldurra baitu. Horrek, beharbada, hurbileko saltoki txikiak bultzatuko ditu, kalitatezko produktuak eta prezio onak eskaintzeaz gain, ez baitituzte azalera handietako jende pilaketak», azaldu du Ana Isabel Jimenez Zarcok, UOCeko Ekonomia eta Enpresa Ikasketetako irakasleak. Ildo horretatik, Kantarren datuen arabera, auzoko edo eskualdeko supermerkatuek eta auzoetako kate ohikoek –hala nola DIA edo Eroski– kontsumo handiko merkatuko kuota irabazi dute hipermerkatu handien aldean.

MARKA ZURIRA ITZULIKO DA

Pandemiak utzitako krisi ekonomikoko larriak kontsumitzaileen ahalmen ekonomikoa galtzea dakar. «Seguruenik, oinarritzokoagoak eta merkeagoak diren produktuen alde egin eta erosketak arrazionalizatuko



dute, 2008ko krisian bezala», dio Gazquez-Abadek. Haren ustez, kate askoren eskaintza murriztuko da berriro, erosketasaski merkeagoa baina osoa eskaintzeko. Ahalmen ekonomikoa galtzen duen kontsumitzailea eskaintzetan eta sustapenetan arreta handiagoa jarriko duen bezeroa izango da. «Litekeena da kate eta marka askotan sustapenen presioa handitzea», azaldu du Gazquez-Abadek. «Testuinguru horrek banatzaile-marka edo marka zuri asko mesedetuko ditu; izan ere, ahalmen ekonomiko txikiagoak eragindako arrazionalizazio handiagoa dela-eta, kalitate-prezio erlazio onena duten markak hobeto balioetsiko ditu kontsumitzaileak». Marka zuriak areagotzea iragartzen duen arren, adituak dio arina izango dela.

«Kontsumitzeko modua kontrolatuagoa izango da, etxeko ekonomiak kaltetuta egongo baitira. Azken urteotako joera ekologikoa familia bakoitzaren erosteko ahalmenaren arabera izango da: produktu ekologikoa garestiagoa izaten da eta, beraz, goi ekonomietako 'luxu' bihur daiteke», nabarmendu du Solerrek. Gainera, haren ustez, «marka zuriek beren auke-retan gero eta produktu ekologiko gehiago sartu dituzte, eta krisi ekonomikoak marka zurien kontsumoa handituko duenez, salneurriak arrazoizkoak badira, baliteke kontsumitzaileak marka zuria kontsumitzea, baina baita produktu ekologikoa ere».

ORDAINKETAK, TXARTELAREKIN

N26 banku mugikorrek emandako datuen arabera, Estatu espainolean eskudirua ateratzeko eragiketak %68 jaitsi ziren martxoan. Eskudiruaren eskaera handitu beharrean jaitsi egin



Kalitate-prezio erlazio onena duten markak hobeto balioetsiko ditu kontsumitzaileak.
Andoni CANNELADA | FOKU

den lehenengo krisia da hau. Hartara, txartelarekin ordaintzea izango da kontsumitzaileen modalitatearik gogokoena, eta hori berri ona da saltzaileentzat. «Kutsatzeko beldurra- ren ondorioz, ia segurua da kontsumitzaileak erosketak egiteko eskudiru gutxiago eta txartela eta ordainketa mugikor- rarako bitarteko gehiago erabiliko dituela», dio Gazquez-Abadek. Gainera, «horrek den- dei ere mesede egiten die, fro-

gatuta baitago txartela erabil- tzeak erosketak egiteko kartsu- tasun-maila areagotzen duela, baita erosketa aldi bakoitzeko batez besteko gastua handitu ere». Faktore horrek saltokieta- ko sustapen ekintzen kopurua handitu dezake, erosketa su- tsuak eta planifikatu gabeak bizkortzeko.

Eta moda kontsumitzen due- nak bere kontsumo-eredua al- datuko du moda azkarraren (*fast fashion*) kalterako, ala ma-

siboki erosiko du? «Jende askok denda fisikoen irekiera baliatu- ko du deskonfinamenduaz go- zatzeko modu gisa. Modako produktuak eta osagarriak erosteaz gain, kontsumitzaile- ak dendetara egindako bisital- diak balio erlazonala, hedoni- koa edo entretenimendukoa lortzeko modu gisa erabiltzen ditu», dio Jimenez Zarcok.

Ildo horretatik, Neus Solerrek ondorioztatu duenez, nahiz eta jendeak ingurumenaren gaine- ko kontzientzia hartu duen, zailtasun ekonomikoak izanez gero, norbanakoaren interesa kolektiboaren edo komunitate- aren gaintik jarriko du. Beraz, bere ekonomiak produktu eko- logiko bat edo modu iraunko- rrean ekoizitakoa erosteko au- kerarik ematen ez badio, bere borondate ona gorabehera, ezingo du ingurumenarekin kolaboratu.

Kontsumitzaile berriak lineako erosketei beldur gutxiago izango die, marka zuriekiko sentikorra izango da, hipermerkatuetatik urrundu eta txartelarekin ordainduko du

COVID-19 gaixotasunak eragindako krisiak merkataritza elektronikoa eta merkataritza automatikoa bultzatu ditu, adituen arabera. Erosteko beste modu bat



Gorka Etxebarria Dueñas
Historialaria

Whiski botilari tiraka, musikaz

Aurrekoan egin genuen Montauk musika taldean nork bere bidea abiatu aurreko bazkaria. Luze aritu ginen. Oso luze. Musika eszenari buruz, euskarazko kulturari buruz... Irlandar likore atseginak lagunduta, jira eta bira. Baten baten orekak huts egin eta aulkitik ere erori zen azkenerako. Penarako baino, hausnartzeko parada izan genuen.

Montaukeko taldekideok izan ditugu nork bere abentura musikalak (Rumbaguerrilla, Hudaltzainak, Prismates, Expolio, Gedar...). Elkar ezagutzen ez genueneko eta gaztetxoak gineneko anekdotak. Lehen aldiz lokal bat eduki genueneko, ostiralero lagunekin elkartu eta banda bat egiteko asper-ordu luzeak. Gehienon aterpe izan zen Gasteizko Gaztetea. Musikagile guztiok maitasuna diogu Gazteteari, babesa eta irribarreak ematen baitizkigu lehen unetik, diruari eta salmentei garrantzirik eman gabe. Elkartasuna bere osoan. Ondo zaindu behar dugu. Urte batzuk pasata, jakinda ez ginela ezer berririk esaten ari, panoramaren ertzak eta gorabeherak zerrendatuz joan ginen. Inori errua bota gabe, guztiok loditzen baitugu bazka.

Zein itxia den auzo-herrietako festetako zirkuitua: tokiko taldea afariaren truk eta dirua gorde modako bandarentzat. Gastuak orekatu behar dira, egia da, baina badirudi erdibidean ezer gutxi dagoela. Inori ez zaio bururatzen Mahouko garagardoak ordaindu beharrean banatzailea bokadilo batera gonbidatzea, gastuak orekatzeko. Badaude ordaindu be-

harreko gauzak eta ez direnak zertan pagatu. Baina guk ez dugu dirua irabazteko jotzen, astean zehar joaten gara beharera...

Ohitura dugu, bestalde, erakunde publikoei begira gertatzeko. Zenbat itxi duten euskal irrati publikoa azken hogeitortean, “eta orain, euskarazko kanta” formatura bidean. Basque Culinary Center estiloa, badakizue, “*Egunón, buenos días*”... zer eskatuko diegu bada rantxerak euskaraz direla uste dutenei... Bide batez, a ze inbidia ematen duen batzuetan espainiar nazionalismoak eta zenbat zaintzen duten “*cosecha nacional*” delakoa beren hedabide publikoetan. Eta nola ez garen existitzen gazteleraz sortzen ez dugunak, ez omen gara beraien nazioaren parte. Horiek ere ezgai dira beren aurreiritzi nazionalistak gainditzeko. Bide batez, frantsesez egiten denaz ideiarik? Ni ez naiz kapaz hiruzpalau hitz baino gehiago ulertzeko. Berrogeialdian japonieraz esaldi pare bat ikastea da bururatu zaidana. Nahiz eta euskal herritarrak izan, frantsesez egiten dena hegoaldekoon-tzat ikusezin.

Zein gutxi entzuten ditugun lehen lerrotik kanpo dauden musika taldeak, jendea kapaz baita talde bat zazpi aldiz disfrutatzeke uda berean, beste kontzerturik ikusi gabe.

Zein zaila den *mainstream* ez den musika egin eta dirurik ez galtzea. Dirurik ez galtzea kontzertu bat jotzeagatik! Horra hor Fredi Paia lagun maitearen aldarria behin eta berriro. Halere, zein abantaila lekarke frantses Estatuaren ereduak,

kulturgileentzako gutxieneko soldata batekin? Merezki du soldata batekin euskal eszenan bueltaka aritzea etengabe? Edo bilatu beharko ditugu bideak, europar underground eszenan, taberna eta areto txikietan, euskarazko musika entzun dadin? Gu geu al gara gure buruari mugak jartzen dizkiogunak? Diruaren lehentasuna kritikatu eta diruari begira gabiltzanak?

Eztabaida buklean sartu da, ene bada. Benga, nor bere etxera. Utzi, utzi, nik egingo dut harrikoa bihar goizean. •



Ilustrazioa: JONBI EGURTZEGI

{ koaderno } Amaia Nausia Pimoulier

Volkswagen ere ixten dutenean

Pandemiaren hasieran hainbat teoria eta konspiranoia entzun nituen; besteak beste, orain arte ospetsuena izan dena, birusa Txinak sortu zuela laborategi batean eta handik mundura zabaldu. Atzean estrategia geopolitikoak eta ekonomikoak, 5G merkatua monopolizatzearen nahia adibidez. Baina sare sozialetan eta Trumpen ahoan entzunda ditudan teorien artean, bakarra izan da egia izatea gustatuko litzaidakeena eta gehiegi zabaldu ez dena, eta hori, nire ilobari entzun nion eta egia izatearen esperantza izan dut beti; gizakiak eragindako kutsadura itzulerarik gabeko puntu batera iritsi denez, pandemia hau izan da agintarietako egoera gelditzeko aurkitu duten bide bakarra. Pandemiak, edo, zehazki, konfinamenduak, gutxienez planetaren tenperatura gradu erdi jaistea lortu arte iraungo zuela esan zidan itxialdiaren hasieran. Bestela, espezie gisa desagertzera behartuta geundela esan zidan, hau da, zientzialariek azken hamarkadotan behin eta berriro esan diguten berbera. Nire ilobak, erreproduzitzeko gai ez naizen datu zientifikoak emateaz gain, gauza bat argi zeukan; gure bizimodua, gure kontsumo, ekoizpen eta kutsadura mailak jada jasanezinak direla, duela hamarkada bat itzulerarik gabeko puntua gurutzatu genuela eta horrelako neurri zorrotz bat beharrezkoa zela.

Arrazoi ekonomikoak ere eman zizkidan, noski; aspaldi dakite energia fosilak agortzen ari direla, enpresa eta merkatu talde handiek negozio berriak bilatzen dituzte eta mundu mailako katastrofe bat behar zen bait gauza justifikatzeko eta gure kontsumo ohiturak aldatzeko. Itxialdiaren ondoren etorriko den krisialdiak horren pobre utziko gaitu, ezen gehienok ezin izanen dugun hegazkinez bidaiatu –ekologiaren

ikuspuntutik jasanezina zena–, eta kontsumitzeko eta garraiatzeko modu zaharretara itzuliko gara. Automobilgintza tradizionala agortuta dagoela ere esan zidan.

Ez dakit nire ilobak arrazoi duen, berak idatzi beharko luke artikulua hau, eta ez nik, baina aste honetan Bartzelonako Nissan lantegiak ixteko asmoa iragarri zuela entzun nuenean, martxoaren erdialdean berarekin hitz egin nuenaz gogoratu nintzen. Automobilgintza ardaztutako gaur egungo ereduak agortuta dago, baina gure gobernuak beste aukerarik eskaintzen ari al dira? Nafarroan, esate baterako, gure ekonomia zati handi bat Volkswagen konpainiaren lantegiaren mende dago zuzenean edo zeharka, eta, Nissanen albistearen aurrean, «*cuando las barbas de*

Entzundako konspiranoietan gustukoena: gizakiak eragindako kutsadura itzulerarik gabeko puntu batera iritsi denez, pandemia hau izan da agintarietako egoera gelditzeko aurkitu duten bide bakarra

tu vecino...» esaera zahar espainiarrean pentsatu dut. Zer beste aukera dugu gure industriarako? Ekonomia-ri dagokionez lurralde subiranoagoa, planetari errespetu handiagoa diona eraikitzen lagunduko duen beste bat, edo, besterik gabe, alemaniarrek bizkarrean zaplatatxoak ematen jarrai dezaten otoitz egiten jarraituko dugu? Ondo legoke Nafarroan Volkswagen amaituko dela pentsatzen hasiko bagina, zer-nolako eredu sozioekonomikoa nahi dugun hausnartzen hasiko bagina; askoz burujabeagoa den industria baterantz, etorkizuneko erronketara bideratuta dagoena eta ikuspegi ekologista duena, etikagatik ez bada, gure espeziearen biziraupen hutsagatik bederen. •

Hezkuntza arloko profesionalek ulertu behar duten gauzetako bat da hezkuntza fenomeno soziala dela». Ideia horretatik abiatzen da Joxi Imaz “Hezkuntzaren soziologia” (UEU) lanean. Buruxkak.eus atarian lehen atala irakur daiteke.


**Koronabirusaren garai hone-
tarako benetan aproposa da
liburua.**
Ez dakit, zergatik esaten duzu?

Hezkuntzaren eta jendartearen arteko loturan aipatzen dituzun ideiak agerian gelditzen ari direlako, adibidez ikasteko guztion baldintzak ez direla berdinak.
Egia, egia. Asko errepikatu da nola desengantxatu diren lehenago ere justu zebiltzanak eta nola berriro frogatzen den ez dela gaitasun edo meritu indibidualaren kontu bat. Atzean faktore asko dago: baliabide teknologikoak, familiarren laguntza... Emile Durkheim soziologoa izan zen lehenengoa hezkuntzaren eta

gizartearen artean harreman estua zegoela esaten. Nahiko esaldi probokatzailea esaten zuen, baina nire ustez arrazoi du: «Gurasoek ezin dute beren haurra nahi duten bezala hezi». Garai bakoitzean arau, bali-ohitura, instituzio batzuk daude normalitate bat markatzen dutenak. Imaginatu normalitatearen autobus bat; aurrerago, eskuinerago edo ezkerrerago eraman ditzakezu umeak, baina autobusetik kanpo oso zaila da. Beste adibide bat udaleku irekiak dira. Lagun bat bere umearekin gel-

*«Lehen ere
pantailen munduan
bizi ginen eta
itxialdi honetan
handitu egin da
hori. Lehendik
zeuden fenomeno
sozialak esajeratu
egin dira itxialdian»*

ditu zen, apuntatu gabe, baina inor ez zegoen parkean, denak udalekuan zeuden. Orduan hurrengo urtean apuntatu behar izan zuen. Durkheimek esaten zuen argi dagoela gizarte bakoitzean hezkuntza mota desberdin bat dagoela: Grezia klasikoan Esparta gerlariagoa zen, Atenas artistikoagoa, Erroman jendea akzioan hazten zuten, gerrarako... Erdi Aroan kristauagoa izan zen, Errenazimenduan laikoagoa, literarioagoa, eta gaur egun zientzia eta teknologian zentratua. Hori ez da gure geneak



«Zer gizarte eredu nahi dugun jakin behar dugu eta hezkuntza horren alde jarri konplexurik gabe»

aldatu direlako, baizik eta gizarteak behar ezberdinak dauzkalako. Hezkuntza ez da “ea zer ateratzen zaigun”, “kazetari bat atera zaigu, edo soziologo bat”. Harkaitza nahi duzun bezala jotzen duzu nahi duzun eskultura lortzeko. Horregatik hainbeste abertzale euskaldun Euskal Herrian eta hainbeste nazionalista espainol Espainian, gizarte bakoi-tzak bere burua erreproduzitzeko behar duen pertsona mota sortzen duelako. Hortaz, soziologoentzat hezkuntza ez da dohainak bilatzea eta horiek garatzen laguntzea; gehiago da gizarte batean bizitzeko prestatzea. Koronabirusaren garaiotan ezberdintasunak biderkatu egin dira. Pantailen gaian sartuta, lehen ere pantailen munduan bizi ginen eta itxialdi honetan handitu egin da hori. Lehendik zeuden fenomeno sozialak esajeratu egin dira itxialdian.

Izugarrizko denbora pila ematen dugu pantailetan.

Bestela ere ikaragarria zen, be-launaldi gazteetan Internet, helduagoetan telebista, baina orain dena pantaila bihurtu da umeen kasuan: eskolako lanak, aisia, harremanak. Egune-ro sei ordutik gora daude pantailetan eta hori ez da oso osasungarria. Erronka gehiago ere agertzen zaizkigu, Youtubek eta halako zerbitzuek estilo bat markatu baitute, bideo azkarrena, eta horregatik igo da arreta defizita, hiperestimulatuak gaudelako. Filosofo eta soziologo batzuk deskone-xio digitala proposatzen ari dira, gure osasuna mantentzeko.

Arreta defizita arazo soziala da, hortaz?

AEBetako mapa batean garbi ikusten da estatu batzuetan

JOXI IMAZ BENGOTXEA

«HEZKUNTZAREN SOZIOLOGIA» LIBURUAREN EGILEA

Soziologian doktorea, Hezkuntzaren

Soziologia ikasgaia ematen du EHU

1999tik. UEUrekin kaleratu duen liburuan

hezkuntzak jendartea eraldatzeko duen

funtzioa aldarrikatzen du.

Maider Iantzi Goienetxe

besteetan baino handiagoa dela arazo hori, beraz, definizioak soziala izan behar du. Edozein gaixotasunetan ikusten da hori, eta oso labainkorra da zer den gaixo egotea eta zer ez. Urritasunekin hori gertatzen da. Soziala da non jartzen dugun muga, irratiko dial bat bezala. Denok dauzkagu urritasunak. Stephen Hawkingen teoria batzuk ezin ditut ulertu. Ematen zuen berak zuela urritasun fisikoa, baina berarekin konparatuz ia denok daukagu urritasun mentala. Orduan definizioa soziala da eta inguruan industria bat sortzen da: psikologoen, botikena... Errazegi diagnostikatzen da eta ahaztu egiten zaigu atzean faktore sozialak daudela. Eskola porrotaren kasuan gauza bera. Nork esaten du 7 urterekin maila bateraino irakurtzen jakin behar dugula denok? Erabili al dituzu aspaldi ikasi zenituen deribatu eta integralak? Gizarte honetan prestigio gehien duten ikasketak matematika horiekin lotutakoak dira. Filtro batzuk pasatzen ditugu ingeniari onenak bilatzeko. Horiek izango dira gero lanpostu eta postu sozial hobere-nak edukiko dituztenak. Orain ez genuke Bigarren Hezkuntzako Matematikako azterketa bat pasatuko, ezta Historiako edo Hizkuntzako bat ere. Gaztelaniaz ikasi zenuen?

Ez, euskaraz.

Eta gaztelania ematen zenuen?

Bai.

«Define y ponme un ejemplo de oración recíproca indirecta». Halako adibide pila dago. Zenbat ordu pasatu ditugun eskolan alferrik, curriculum ofiziala zer lotuta dagoen bosterearekin eta zenbat urte

eman ditugun soilik hesiak pasatzen nahi genuen edo gizarteak nahi zuen tokira iristeko. Hezkuntza konstruktibista bat erabili beharrean, interese-tik abiatuta, gertuko komunitatetik, arazo sozialetatik. Gure kasuan arazo ekologikoak izan daitezke, zapalkuntza nazionala eta kulturala, euskararen egoera soziolinguistikoa... Zer esanik ez hezkuntza emozionala, drogak, sexua. Curriculumaz zalantzan jarri beharrean oraindik curriculum hierarkiko bertikal, ofizial horretan gaude. Hiru gauza neurtzen dira hor: zientzia, teknologia eta hizkuntza.

Kontzienteago izan beharko genuke hezkuntzaren eta jendartearen arteko harremanaz eta hezkuntzak lotuago egon beharko luke jendartearekin?

Lehenengoa bai. Hezkuntzaren eta gizartearen arteko harremanaz kontzienteago izan beharko genukeela, seguru. Lotura gehiago eduki beharko lukeela, ez. Gutxiago ere ez. Eztabaida honetan ikasle batzuek esaten dute “egia da oso lotuta dagoela, orduan hortik ihes egiten saiatuko naiz”, baina animalia sozialak gara. Egitea daukaguna da beste talde bat bilatu edo gure taldean bostere harremanak aldatu, arauak eta balioak aldatzeko eta gure gizartea aldatzeko. Hezkuntzak eraldaketa soziala bultzatu beharko luke, aipatu ditugun arazo inportanteak dauzkagulako: ezberdintasun sozialak, identitatearekin lotutako arazoak, ekologiarekin, generoarekin, kulturarekin lotutakoak. Soluzioa ez litzateke izango esatea hezkuntza ez-politiko bat egin behar dugula. Kontziente izan behar dugu beti dela politikoa eta beti dagoela nonbait kokatua. Ikasto-

lak, adibidez, Frankismoan sortu ziren Espainiako hezkuntza sistema frankistari aurre egiteko eta orain ere lotura hori hor dago. Zer gizarte eredu nahi dugun jakin behar dugu eta hezkuntza horren alde jarri konplexurik gabe, hezkuntza beti dagoelako zerbaiten zerbitzura, beti aurreikusten duelako etorkizuneko gizarte eta pertsona mota bat.

Beraz, zein izanen litzateke hezkuntzaren papera?

Alde batetik, gizarte batean bizitzeko prestatzea. Bestetik, pentsatu nahi dut balio izan behar duela gizarte hori zalan-tzan jarri eta eraldatzeko. Edukiak baino gehiago konpetentziak landu behar dituela esaten da: ikasten ikasi, izaten ikasi... Beste konpetentzia bat eraldatzen ikastea da.

Gaurko Euskal Herriko hezkuntzan eraldaketaren ideia hori aplikatzen da?

Nire gusturako gutxiegi. Espainia mailan Fuhem fundazioa dago eskoletan trantsizio ekosoziala lantzeko, Intered gobernuz kanpoko erakundea ere bai... Euskal Herrian badaude gauzak, adibidez murgiltze euskaldun batetik hezkuntza eta komunitatea pentsatzeko proiektuak eta tokiko ekoizleekin ikuspegi agroekologiko batetik dabiltzan jangelak. Baina gehiago egin genezake eta badaude tentsioak, Madril eta Parisen hezkuntza zentralizatzeko saiakerak kasu. Euskal Herrian publiko-pribatu eztabaida ere bada, baina ikastolen kasuan herritik eta herriarentzat sortu ziren. Kontuz ibili behar dugu gure teilatuari harriak botatzearekin.

Eskolaz ari gara, baina hezkuntza ez da hori bakarrik.



Jon URBE | FOKU

«Oso labainkorra da
zer den gaixo
egotea eta zer ez.
Urritasunekin hori
gertatzen da.
Soziala da non
jartzen dugun
muga, irratiko dial
bat bezala»



Pentsatu zein inportanteak diren jangelako orduak, eskola kirola edo ludoteka. Hezkuntza bereziko hezitzaileak, orientazioan ari direnak, pisu tutelatueta, familiei laguntzen. Zenbat jende ari den hezkuntzan lanean irakasle izan gabe. Bestetik, hezkuntzako profesionalez gain, etengabe ari gara ikasten, batez ere aurreneko urteetan, motxila hutsik daukagunean, familian, kalean, lagunekin edo bestelako taldeekin, pantailetan. Leku guztietan dago hezkuntza eta

eskola leku bat gehiago bihurtu da.

Hezkuntzaren eta jendartearen arteko loturaz ahanzten garena uste duzu?

Bai. Askotan indibidualismora joaten gara pentsatuz “hori listoa da”, “hori tontoa da”. Pentsatzen genuen eskolan ondo zebilena listoa zela, baina askotariko inteligentziak daude. Bestetik, ahazten zaigu presio sozial hori denbora osoan hor dagoela. Badago korrante bat pentsatzen duena eskola eta

bizitza zu eta zure merituak direla, eskolan denak zerotik hasten garena. Beste batzuek diote ikasle batzuk oztupoekin hasten direla eta beste batzuk, berriz, pribilegioekin. Ezberdintasun handiak daude hasieratik kapital ekonomikoan, kulturean, sozialean, hizkuntzan, jarreretan, motibazioan. Badago ahazte bat korrante aurrerakoietan ere. Horiek diote hezkuntza natural bat berreskuratu behar genukeela. Ikuspegi soziologiko batetik kultura askoz inportanteagoa

da pertsonaren bizitzan natura baino. Orduan nahiko kontraesankorra da esatea naturan bilatu behar dugula hezkuntza. Egia da hezkuntza ez hain autoritario baten bila joan beharko genukeela, baina adin gehiago daukan belaunaldi bat egongo da eta bere ideiak transmititzen saiatuko da belaunaldi berriari, logikoa den bezala. Ideia horiek alternatiboak izan daitezke: askatasuna, Euskal Herria edo justizia soziala. Baina beti egongo da gizartea atzean.

A photograph showing a person's hands on a balcony, using a metal bowl and a wooden mallet to bang pots and pans. The balcony has a metal railing and white shutters. The text "GAUR8" is in the top right, and "ireki gure leihoa" is in the bottom left.

GAUR8

ireki gure leihoa



Andoni CANELLADA | FOKU

IKUSMIRA

ARGAZKILARIAK, ARGAZKIAN

Eskuarki eurek egiten dituzte argazkiak. Horixe da euren lana. Batzuetan, ordea, eurak agertzen dira argazkian. Oraingo honetan, nahiago lukete agertuko ez balira. Joan den osteguneko argazkia da, Realaren Zubietako kirol instalazioen parean, Euskal Herriko Informatzaile Grafikoen Elkarteak deituta, futbol zelaietara beren lana egitera sartzeko debekua salatu zutenekoa. «Informazio eskubidea dugu jokoan», diote. Informazio eskubidea eta lana. Ekainaren 11n hasiko da futbol liga, baina informatzaile grafikoek ezingo dute ez entrenamenduen ez partiden irudirik hartu. Futbol klubek eta Futbol Liga Profesionalak zabalduko dituzte irudi horiek. Diotenez, kazetaritza funtsezko jarduera da, baina, nonbait, futbol zelaietan ez. Futbol Liga Profesionalak kontratatu duen agentziako argazkilarientzat izan ezik.

Nahiago lukete agertuko ez balira. Nahiago lukete, nahiago genuke, informazio eskubidea horren sakratua izan gabe ere, errespetatuagoa balitz. Xabier Izaga Gonzalez

Eskaera interesatua

**Nekane
Zinkunegi
Barandiaran**

Iruditzen zait ez dagoela pandemia egoeran egon beharrik Eusko Jaurlaritzak Madrili eskatzeko presoak Euskal Herrira ekar ditzala. Eskaera ongi etorria da, noski, eta berandu datorrela iruditu arren, uste dut eskatu duenak badakiela ongi noiz eta zein epealditan egin duen. Zentzuzko eskaera, beharrezkoa, giza-legezkoa. Baina ez dakit asmo zintzoa soilik den, ala balizko etekin politiko-arekin zerikusi gehiago duen.

Izan ere, garaiotan areagotu egin da euskal presoek eta haien senide

eta lagunek jasaten duten sufrimendua. Baina, kontuz, ez du pandemiak eragin. Sufrimendua lehenagotik ere bazegoen, batzuen begietara –eta pintada batzuek eragindako itzalagatik edo– ikusezina dirudien arren.

Espetxeak ez du osasun arreta eta zaintza egokirako baldintzarik eskaintzen. Konfinamendua berezkoa den kartzelan, are gogorragoa da pandemiak eragindako itxialdia. Egoera larria bazen, larriagoa da orain, lehen ere hamarnaka baitira medikuaren edo psikologoaren arreta be-

har duten euskal presoak. Osasuna lehenestearen izenean komunikazioak eta bisitak ere murriztuta, are gehiago urratu dituzte gatibu dauden eskubideak.

Beraz, inork ez luke dominarik jartzten ahalegindu behar haiek Euskal Herrira ekartzeko eskatuta, izatez, legez dagokienean. Espetxe Erakunde- en aldetik etorriko denak ez du itxaropenerako tarterik uzten oraingoz. Bitartean, beraz, geure kabuz eta gutun bidez ahalegindu beharko dugu inposatutako distantzia murrizten. •

Lotsa botanikoa

Joxean Agirre

Pandemiaren kontrako segurtasun tartearen arauak bereziki tropikoetako basoetan ematen den “lotsa botanikoaren” fenomenoak ekartzen du gogora. Zuhaitz mota batzuekin bakarrik gertatzen da, al-tuera ikusgarriko zuhaitzak dira eta elkarren artean tarte bat utziz luzatzen dira zerurantz, baina elkar ukitu gabe edo elkarren artean tarte bat utziz.

Zientzialariak ez datoz bat zuhaitz lotsatien edo *crown shyness* fenomenoak esplikatzeke orduan. Elkarri minik ez emateko hartzen ote dute joera hori? Edo argiari sartzen uzteko? Edo gaitzak elkarri ez kutsatzeko? Pandemiaren garaiotan gizakiok zeinen elkarren herabe gabiltzan kontuan izanik, badirudi azken hipotesia dela logikoena.

Badauka bere mamia tarte sozialaren kontu honek. Gure etxean, esaterako,

anai-arrebok ez gara besarkada luzeak ematekoak, ezta motzak ere. Bi musu frantses gehienez ere okasio handietan. Hurrengo belaunaldiak, ordea, iloba batzuek bereziki, sentimenduak agertzeko dugun gaitasun urria aurpegiratu izan digute. Nik neuk besarkadak intimitate-rako uzten ditudala erantzun izan diet, beren jarrera ustez irekiago hori telebis-taren eragina besterik ez dela ere aurpegiratu izan diet eta gure amak begirada batekin sentimendu gehiago adierazten zuela haiek beren besarkada luzeekin baino.

Ohitura kontua da. Nik ez diot sekula behatz lodia altxatuz OK zeinurik egin-goinori, nahiago dut mila aldiz ukabila besagaineraino altxatu. Maitasun keinu gisa musuak airera botatzea futbolarientzat uzten dut eta ez dut uste sekula iritsiko naizenik bi eskuekin bihotz ba-

ten forma marraztu eta sistole eta diastoleak antzeztera.

Ni Becketten eskolakoa naiz eta hark Parisen “baserritarren agurra” deitzen zuena dut gustuko, buruarekin kolpe doi bat gora. Itxialdia bukatu eta lehen aldiz mendira nindoala nire jendetasun gehiegizkoak harritu ninduen, ezezagun guztiei egiten bainien agur, ezagunekin hizketaldi luzeak egiten geratzen bainintzen. Baina itzuli naiz nire onera, Becketten agurretara alegia.

Nik entzun dudak diosalik ederrenetako Urrestillako Olaberriko kaminero-arena da. Sendoa omen zen gizona. Egurrezko eskorga astun batekin egiten omen zuen lan (30 kilo izango zituen) eta norbaitek pasadan bozina jotzen bazion eta eskorga hori hutsik bazuen, esku bakarrarekin heldu eta gora jasotzen omen zuen. •



Elzbieta Podolak, etxeko leihoan txirula jotzen. GAUR8

infraganti ELZBIETA PODOLAK

Ia lau hamarkada daramatza Euskal Herrian eta bizitza osoa musikari lotuta. Azken urteak Nafarroan eman ditu, «ametsetako etxean», baina senarraren heriotzak ametsa zapuztu zion iaz. Edonola ere, bizi berri batek arinduko dio mina, berak mañeruarrei bere musikaz itxialdia arintzen dien bezala. Elzbieta Podolak. Txirulari profesionala.

Martxoaren 15ean eskaini zuen Mañeruko lehen txirula kontzertua eta joan den astean berrogeita hamargarrena. Horrela goxatue itxialdia Elzbieta Podolak flautista profesionalak mañeruarrei. Ia egunero kontzertu txiki bat eskaintzen du 21:10ean puntuan Zirauki kaleko bere etxeko leihotik. Hogei minutuz, lau zatitan, konposi-

tore klasikozen zenbait pieza, musika garaikidea, herri musika... «Konposizio txikiak izaten dira, dantzak, minuetak, sonata zatiak...». Eta ez da erraza, *a cappella* jota. Lan handia egin du kontzertuak prestatzeko.

ASKOTARIKO MUSIKA

Errepertorio zabala du, konpositore barrokoetatik garaikideetara: Cuperin, Bach, Mozart, Beethoven, Schubert, Chopin, Txaikovski, Debussy, Sorozabal, Iradierren eta beste askoren musikarekin batera, kontzertuaren atal batean The Beatles, Benito Lertxundi edo Mikel Laboa entzuteko aukera izaten da, baita herri musika eta haurrentzako euskal abestiak ere, azken horiek oso gogokoak baititu. Kontzertua baino lehen, abestien hitzak bidaltzen dizkio bere publikoari, hark ere parte hartzeko.

Egunero jo izan du, euri egunetan izan ezik, hezetasuna dela-eta ezin baitu txirula atera, oso kontuz ibiltzeko moduko tresna baita. Kontzertuak egiten jarraitzeko asmoa du, baina noizbait moztu egin beharko duela uste du: «Konfinamenduaren fase irekiago batera igaro garenez, ez dut jendea asperitu nahi», azaldu du. Zaila du bizilagunak aspertzera, ordea, hasieratik harrera ezin hobea izan baitu haren musikak.

Ezlbietak ez du sumatu musika klasikoarekiko uzkurtasunik. «Mañeru herri txikia da, 400 biztanle ditu, eta hemen badago abesbatza bat, gehienbat jende nagusiak osatua, eta oso ondo egiten dute. Baina gazte batzuek ere izena ematen dute eta jendeak, oro har, gustuko du musika».

Zeharkako txirula ez da maisutasunez erabiltzen duen musika tresna bakarra. Ahotsa da bestea. Donostiako Orfeoiko ki-

de da Elzbieta aspaldi luzetik, «eta oso harro nago horretaz». Ia bizitza osoko musika prestakuntza du musikari poloniarrrak. Bere herrialdean hasi zen umetan, eta zentzua duenetik musikari lotuta bizi izan da: haur eskolan, lehen hezkuntzan, Polonian musikan jardungo dutenek egiten duten musika lizeoan eta unibertsitate ikasketetan, hemezortzi urteko prestakuntza arautu eta zorrotza. «Esfortzu handiko urte asko dira», azaldu du, baina baita esfortzu horrek bere fruituak eman zituela ere.

Zeharkako txirula baino lehen, biolina jotzen hasi zen, ikasturtea amaitu baino lehen hil egin zen irakasle edadetu batekin. Eskolako zuzendarietak orduan Elzbietaren gurasoei txirula ikasteko leku bat zegoela esan zien. «Jakina, ikasleei zeregin bat bilatu egin beharra zeukaten, tresna bat. Eta niri zeharkako txirula tokatu zitzaidan», dio. Hemezortzi urte horiek igarota, musikarako afizioa profesio bilakatu zitzaion. Poloniako Irrati Telebis-tako Orkestran jo zuen, harik eta 1979an «maleta batekin eta bi urteko neskato batekin», senarra zena eta bera Mexikora joan ziren arte. Senarra ere musikaria zen, kontrabaxu-jotzailea, hain zuzen. Lau urte eta erdi eman zituzten Mexikoko hainbat orkestratan jotzen.

EUSKAL HERRIRA

Mexikotik Poloniara itzuli ziren, eta luze gabe Elzbietaren senarrak Euskadiko Orkestran plaza bat eskuratu zuen oposizio bidez. 1983. urtea zen. Eta Euskal Herrira etorri ziren. Lehenbizi, Donostiara; ondoren, Ziburun bizi izan ziren, baina Donostiarekiko loturari eutsita. «Horregatik jarraitzen dut nik Donostiako Orfeoian». Bertako



Ia egunero egiten du kontzertua Elzbieta Podolak azken hilabete eta erdian. JGAUR8

kontrabaxu solista izan zen ia berrogei urtez. Senarra Euskadiko Orkestrako kontrabaxu solista izan zen ia berrogei urtez.

Elzbietak, besteak beste, Barakaldo, Donostia eta Gasteizko kontserbatorioetan eman ditu eskolak, baita Euskal Herriko musika eskola askotan, Gasteizko Udal Musika Bandarekin eta Ertzaintzaren Bandarekin kolaboratu izan du, Herriz Herri ekimenean parte hartu zuen Amadeus taldearekin lehenengo eta bost emakumek osatutako Lauaxeta taldearekin gero. Gogoan du hainbat musikari profesionalek bere senarrak bultzatuta osatu zuten taldea ere, eta Irunen haren omenez Gure Ametsa abesbatzarekin egindako kontzertuak.

Izan ere, duela hiru urte, senarrak erretreta hartu eta, hark oso gogoko baitzuen Nafarroa, ilusioz beterik joan ziren Mañe-

rura. Beren ametsetako etxea erosi zuten bertan. Eta duela urtebete alargundu egin zen Elzbieta. «Horrenbeste lan egin ondoren... dena zapuztu zen», dio hunkituta.

Baina tristura sakon horren ondoren, poz handia ere agertu da bat-batean Elzbieta Podolaren bizitzara. Heriotzaren ondoren, bizi berria. Haren semeak eta errainak ume bat izango dute laster. Lau belaunaldi batuko dira etxean. Izan ere, Elzbieta-aren ama ere Mañerun dago uneotan, konfinamendua dela-eta ez baitu Poloniara itzultzetik izan. Seme horrez

Ia egunero kontzertu txiki bat eskaintzen du etxeko leihotik. Hogei minutuz, lau zatitan, konpositore klasikoen zenbait pieza, musika garaikidea, herri musika...

«Bizilagunak bikain portatu dira gurekin, asko lagundu digute. Hasieran ez geneukan behar handirik, baina gero, senarra gaixotu zenean, izugarri lagundu didate. Jende zoragarria da»

gainera, Varsovian bizi den alaba bat ere badu Elzbietak.

BIZILAGUNEI ESKER ONEZ

Herrira iritsi zirenean mañeruarrek egin zieten harrera eta haien portaera nabarmendu

du: «Bikain portatu dira beti gurekin. Hasieran ez geneukan behar handirik, baina senarra gaixotu zenean, izugarri lagundu didate. Jende zoragarria da». Horregatik dio kontzertuok nolabait laguntza hori eskertzeko modua direla: «Zer eman ahal diet nik? Bada, ondoren egiten dakidana, nire interpretazioa, nire musika, musika

gainera, Varsovian bizi den alaba bat ere badu Elzbietak.

klasikora hurbiltzeko saioak. Eta badirudi pozik daudela».

Kontzertuon ideia Julio Iriarte alboko bizilagunaren «txan-txa» batetik sortu zen. Eta etxe horretara iritsi zireneko egunak gogoratu ditu: «Etxe berria zen, hutsik zegoen, eta Juliok, ezagutu gabe, nondik etorri ginen arduratu gabe, kafea hartzera edo bazkaltzera gonbidatzen gintuen». Martxoan, komunitateko Whatsapp taldearen bidez, bere musika oparitzeko proposamena egin zion Iriartek, GAUR8ri berretsi dienez. Elzbietak eta bere familiak herrira iritsi ziren unetik egin zituzten adiskidetasunak. Kontzertutxoan hasierari dagokionez, zenbait jende etxeko balkoian tresnaren bat jotzen agertzen zen bideoak ikusi ondoren, «Whatsapp bidez Elzbieta proposamena egitea bururatu zitzaidan. Elzbietak berehala esan zuen baietz». Zenbait egunetan auzokoren bati eskaintzen dio kontzertua; esate baterako, martxoaren 17an Iriarteren aitari, hain zuzen, egun hartan Covid-19ak eramane baitzuen. Jaiotza, ezkontza edo urtebetetze eskaintzak ere egiten ditu.

Musikak asko lagundu dio Elzbietai, baita senarra hil zenetik igaro dituen une latzetan ere. «Musika dena da. Bizitzako garai guztietan lagun izaten dugu, jaiotzen garenetik hil arte. Orduan ere ezkilak entzuten dira eta gero musika eder batekin agurtzen gaituzte», dio.

Eta musika «itxialdi triste» honen parte izan da. Denbora ahalik ondoena pasatzen eta elkarri amore ematen laguntzeko. «Orain familiekin-eta galdutako denbora berreskuratu beharra dago. Beste modu batez bizi izan, ez horren presaka...». •

Xabier Izaga Gonzalez



Idazlea

Atzerapausoa?

Harritu ninduen emaitzak: genero berdintasunaren eta aniztasunaren inguruko politika aurrerakoiak ditu nire enpresak; erretorika sinesgarri eta konprobatua dago, datu erreale-

Historikoki lurralde ugaritan (denetan ez esatearren), emakumeak hartu ditu zaintza ardura gehienak. Orokortuz, baina horrela da. Eskolak itxita daudenen honetan, haur zaintzaren beharra nabarmen gelditu da eta datuak etsigarriak dira. “New York Times”-ek egindako inkesta baten



Emakumeen eta gizonen arteko hainbat desoreka ikusgarriagoak egin ditu birusak.

GAUR8

Zalantzarik gabe, emakumeen eta gizonen arteko hainbat desoreka ikusgarriagoak egin ditu birusak. Hainbeste borrokatuko oreka eta printzipioak hausten ote doaz? Profesionalki garatzeko aukerak murriztuko al zaizkigu emakumeoi? Etxe barrutik jarraituko dugu borroka honetan. •

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



ADMINISTRAZIOAREN ARTXIBO NAGUSIA. ALCALA DE HENARES

FORTUNATO AGIRRE, LEHEN EUSKAL UDALEN BATZARREKO BURU

1931ko ekainaren 14an Euskal Udalen Batzarra bildu zen Lizarran. Eusko Ikaskuntzak egindako Euskal Estatutua onartu zuten euskal udal gehienak izan ziren bertan. Egun horretan 4.000 auto, autobus eta tren berezi baino gehiago joan ziren Nafarroako udalerrira. 12:00etan herriko kaleetan izan zen desfilearen ondoren, batzarra hasi zen antzokian, Fortunato Agirre Lizarrako Udaleko zinegotzia buru zela. Han irakurri eta onartu zen estatutu proiektua. Arratsaldean, jendez mukurik betetako zezen plazan, Fortunato Agirrek berak hasiera eman zion mitina egin zen. Besteak beste, hitz hauek esan zituen: «Gaur goizean Euskal Herriko udalen batzarrean aho batez hartutako erabakiak aldarrikatzera etorri gara ekitaldi honetara. Inoiz ez dut ohore nabarmenagorik amestu lehen Euskal Udal Batzarreko buru izatea baino, herri honetako benetako ordezkariak baitira, eta Euskal Herriak bere etorkizuna gidatzeko borondatearen adierazpen subiranoa...». Mitin hartan Getxoko alkate Jose Antonio Agirrek ere hartu zuen parte txalo beroen artean. Julian Elorza Eusko Ikaskuntzako lehendakariak eman zion mitinari amaiera «Viva Navarra!» eta «Gora Euskadi!» oihukatuz. Irudian, Fortunato Agirre egun hartan Lizarrako zezen plazan publikoari mintzatzen. Fortunato Agirre, EAjko Napar Buru Batzarreko kidea, Lizarrako alkate hautatu zuten 1933an. 1936ko uztailaren 18ko altxamendu militarren ondoren, 1936ko irailaren 29an matxinatuek atxilotu eta hil egin zuten Taxoare inguruan.



7haizetara

BIDAIA ALDIZKARIA

DATORREN **OSTIRALEAN** ZURE **KIOSKOAN** **SALGAI**



Algarve furgonetan Paradisua hippy erara

Camperrak sekula baino gehiago saldu dira pandemiaren aurretik, autokarabanak baino merkeagoak direlako. Batak zein besteak Portugaleko kostaldea ezagutzeko ezin aproposagoak dira.

Eta gainera: Serengeti, Afrikako fauna basatia bizitzeko parkerik onena • Zaldiz, Pirinio katalanetan zehar • Palau, Mikronesiako altxor ekologikoa • Suitzako Alpeetan barrena...

HARPIDETU • 11 ALE 15€ URTEAN
WWW.ZAZPIHAIZETARA.COM

1,5€
7haizetara

ZURE BIDAIA ALDIZKARIA
EUSKARA HUTSEAN

